



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 14a

124. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregitura-tzea onesten duena. Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu dute (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 2015 eta 2016 urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak landa eremuko eskolekiko konpromisoa adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren jokabidea arbuizatzen baitu, zeinak Ogasun Ministerioari eskatu baitio Nafarroari 1.513 milioi euro kobra diezazkion Volkswagenen kotxe-salmentako BEZaren bilketagatik. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Berlingo Harresiaren erorketaren 25. urtemugaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa. Eva María Gorri Gil andreak egin du (22. or.).
- Galdera, hitzordura ez joateagatik 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaron-zerrendetan aplikatu diren bajei buruzkoa. Eva María Gorri Gil andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa. Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentua koordinatu ote zen beste autonomia erkidego bartzuetako organo kideekin, 256/1996 Foru Dekretuan jasotako kontrola eta ikuskapena egiteko. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako nazioarteko adopzioarako entitate lankideek bete ote dituzten haien zerbitzuak eskatu dituzten pertsonekin adostutako kontratu-tarifak. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideetara jo zuten pertsonen entitate lankideak mantentzeko jarritako diru kopuruei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek txostenik jasotzen ote duten entitate lankideak adingabearen jatorrizko herrialdean dituen eginkizun eta jardueri buruz. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren alorrean eskumenak dituzten haren menpeko erakundeek nola egiaztatuta eta ziurtatuta duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideekin akordioak sinatu dituzten pertsonen emandako diru-kopuruak 17. artikuluan deskribatzen diren kontzeptuetara bideratzen direla. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuaren 14.i artikuluan deskribaturiko informazioei eta jasotako irregularitasun-salaketei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, ikuskapen eta kontrol zerbitzuak adopzioaren alorrean azken bost urteetan eginiko jarduketari buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez ote dakien nazioko eta nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera errespetatu ote den, arau eta lege aldaketen arabera. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, jakitekoa 3/2014 Foru Legearen Xedapen Iragankor Bakarrean ezarritako baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek adingabeak adoptatzeko lehentasuna izaten jarraitu ote duten. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (35. or.).
- Galdera, jakitekoa ea egokitasun deklarazioei buruzko ebazpen guztietan, erabaki berariazkoa eman eta jakinarazi gabekoetan, igarotzat jo ote diren adopzio eskaera aurkeztu zenetik zortzi hilabeteko gehienezko epeak. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (36. or.).
- Galdera, egokitasuna adingabeen adopzioarako baldintza gisa baloratzearekin zerikusia duten zenbait alderdiri buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (37. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean adopzioarako administrazio prozedura arautzen duen foru dekretuaren proiektuari dagokionez Gizarte Politiketako Departamentuak eskuartean dituen aukerei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (38. or.).
- Galdera, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-lanei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (39. or.).
- Galdera, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (41. or.).
- Galdera, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrerei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (42. or.).
- Galdera, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Bartzordeak Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko 6/2014 Foru Legearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa. Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin du (43. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin foru lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen.

2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
Osasuna klubari bere zerga-zorren
gerorapena onesteko mugak eta
baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko
baldintzak ezartzen dituen**

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioko 43.3 artikulua ezartzen du botere publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dituztela. Halaber, aisialdia zuzentasunez erabiltzeko erraztasunak emanen dituzte.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44.14 artikulua foru erkidegoari eskumen osoa aitortzen dio kirola sustatu eta aisialdia zuzentasunez erabiltzeko. Eskumen hori erabili da Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen onespenez bitartez. Lege horren oinarriko printzipioen artean dago kirolari interes publikoko gizarte jardueraren maila aitortzen zaiola, bizi kalitatea goratu eta pertsonaren prestakuntza nahiz garapen integrala eta norberaren ongizatea bultzatzen dituelako. Kirol egiteak bizikidetasuna eta gizarte kohesioa eta barne-lotura sustatzen ditu, eta lagungarri gertatzen da osasun publikoa hobetzeko; halaber, garapen ekonomikoa eta ongizate kolektiboa bultzatzen ditu.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek kirolaren arloko politika sustatzeko eta zaintzeko betebeharrak daukate, eta jo behar dute helburu nagusia lortzera: erraztasunak ematea pertsona guztiek kirol jarduerak egin ahal izateko. Baina egia da, era berean, ezen xede nagusi horren ondoan, foru legeak beste xede lagungarri batzuk ezartzen dituela. Honakoak, besteak beste: goi mailako kirol jarduerak sustatzea; Nafarroan garrantzizko kirol ekitaldien antolaketa sustatzea;

kirol gaietan koordinazioa eta lankidetzaz zintzoa bultzatzea, Foru Komunitatean kirola sustatzen eta garatzen esku hartzen duten beste entitate publiko nahiz pribatu batzuekin; eta kirol jarduerak kirolaren etikaren esparruko printzipioen arabera egiten direla sustatzea.

Kirolaren Kontseilu Nagusiaren 2012ko datu estatistikoaren arabera, Nafarroa kirol federatuaren ranking nazionalaren buruan dago, 72.360 pertsonarekin. Biztanleriaren % 11,30 da hori; nazioko batez bestekoa, berriz, % 7,47 da. Futbola da foru erkidegoan gehien egiten den kirola; izan ere, 16.434 federazio-lizentzia daude, 217 klub nahiz kirol-entitateetan banatuak. Futbolak, daukan tradizioarengatik eta hedabideetan duen eraginarengatik, oihartzun handia dauka eta baliatu beharra dago gizarte anitz bat eraikitzeko, zeina diziplinaren, elkartasunaren, laguntasunaren, joko garbieraren eta guztientzako baldintza-berdintasunaren balio etikoetan oinarrituko baita.

Kirol horrek daukan hezkuntza- nahiz kulturaldardi garrantzitsuak kendu gabe, aitortu beharra dago haren alderdi ekonomikoak aurrekaririk gabeko dimentsioa hartu duela. Futbolak zuzeneko eragina dauka jarduera ekonomikoan, abonua eta sarreraren salmentarengatik. Baina, batez ere, nabarmentzekoa da nolako zehar-eragina duen partidak telebistaz emateko eskubidearengatik, publizitatearengatik, babesleztarengatik, merchandisingarengatik, ostalaritzarengatik, ostatu-jardue-rengatik eta joan-etorrien gastuarengatik.

Ikuspuntu publikotik, jarduera horrek zerga bidezko diru-sarrera batzuk sortzen ditu, batez ere BEZaren bidez eta prozesu osoan esku hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoen enpresa-etekin gainera zergen bidez; gainera, aipatzekoak dira jokalariei emandako ordainsarien lan-antzikipen muntadunak. Alabaina, sektore publiko horren gainera eragin ekonomikoa erreala izan dadin, zerga-sortzapen horiek egiazko ordainketa bihurtu behar dira.

Berriki entitateko ordezkariak emandako datuen bitartez badakigu Osasuna klubak Nafarroako Zerga Ogasunari, zenbait zergapetze-konzeptu tarteko, 53 milioi euro baino gehixeago zor dizkiola, 2014ko azaroaren 28ra arteko interes-aurreikuspenak barne. 2014-2015 denboraldian Futbol Profesionaleko Liga Nazionaleko Bigarren Mailara (Adelante Liga) jaitsi izanak klubaren arazo ekonomikoak larriagotu ditu eta, gainera, nahasmendu eta kezka soziala eragin ditu zergazorrak ordaintzeari buruz, noiz eta herritarrek Foru Komunitateko Aurrekontuari egiten dioten ekarpenak gora egin duen une batean, zergak igo dizkioteko eta, aldi berean, prestazio publikoen gutxipena pairatu dutelako.

Horri gehitu behar zaio klubaren zuzendaritza-batzordean erakunde-krisia sortu dela eta haren konponbideak –konponbide partziala izan arren– behartu duela presako lege-neurriak hartzerantz.

Orduan bezalaxe, Nafarroako Parlamentuak konponbideak jartzeko betebeharra dauka oraingoa bezalako eztabaida-egoera batean, helburu sendo, argi eta zalantzagabe batekin: zerga-zorra kobra dadila bilatzea eta lortzea. Egin beharra dauka, zeren eta ikusi baita zerga-zorren gerortzeari buruzko araudi indarduna ez dela nahikoa. Izan ere, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 52. artikulua eta Diru-bilketa Erregelamendua arautzen duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuko 48. artikulutik 51. artikulura bitartekoek ez dute aurreikusten zozatikatzea inguruabarren arabera egokitzeko aukera, bereziki garrantzi ekonomiko handiko inguruabarren kasuan, zeinak baitira kirol entitatean etorkizunean eragin dezaketenak. Horri dagokionez, aparteko gauza irudi lezake legebiltzarrak banako baten egoerarako lege bat egiteak. Alabaina, gogorarazi beharra dago Osasuna kluba izan zela otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legeko subjektu bakar eta eskusiboa –lege haren bidez, kirol entitatearen aldeko abala eman zuen Nafarroako Foru Komunitateak– eta, gainera, eskualderako garrantzi ekonomiko handia duten kasuetan, foru lege mailako xedapenetara jo izan dela. Eskuarlean daukagun kasuan, horixe gomendatzen dute interes publiko orokorraren defentsak zorretan dagoen kopuruaren handia eta egoerak herritarrengan sortu duen kezka direla eta.

Kontuan hartu beharra dago Europar Batasunak TFUEko 107. artikuluan estatu-laguntzak debekatzen dituela, halako moduz non Europar Batasuneko kideak diren estatu-erakundeek ezin izanen dituzten hartu merkatu-askatasunaren aurkako neurriak, ez diru-laguntza moduan, ez laguntza fiskalen moduan, abantaila ekonomiko bat direlako haiek jasotzen dituztenentzat, halakorik ez daukaten lehiatzaileen aldean. Hartara, Europako Batzordea Herbehereetako zenbait udal ikertzen hasia da, zailtasun finantzarioak daukaten futbol profesionaleko klubak direla-eta hurrengo gisako neurriak hartu dituztelako: kreditu-ordainketarik eza, klubaren kredituak beren gain hartzea, kredituak barkatzea, estadioaren alokairua atzera-eraginez beharrezkoa, klub bati lurzorua erostea ondoren berari lurzoru hori errentan emateko, eta klubaren jabetzakoak diren entrenamendu-instalazioak erostea.

Hori dela eta, foru lege honetan bildutako konponbideak Europar Batasuneko operadoreen arteko lehia askearen printzipioa errespetatzen du, eta hiru

funtsezko baldintzatan oinarritzen da. Lehenengoa da ez dagoela zorraren barkamenik, ezta haren moratoriarik ere, halakotzat ulertuta zorraren guztizko geroratzea; bai, ordea, geroratzea betekizun jakin batzuekin. Bigarrena da zorpeko zenbatekoa kobratu ahal izateko geroratzearen baldintzak aldatzeko aukera egon beharra dagoela, etorkizunean Osasuna klubean eragina izan lezaketen aurreikus-teko moduko inguruabarren arabera. Horrekin lortu nahi da ezen, diru-sarreraren iturriek hobera egiten badute, araudiak berma dezala geroratzearen baldintzen aldaketa, zergadunari eta Zerga-administratioari segurtasun juridikoa emanaz. Hirugarrena da arautzen dela nolako esku-hartze publikoa izan dezakeen Nafarroako Gobernuak entitatean, eta salbuetsi egiten dela zergen arloko informazioaren erreserbarako eta konfidentzialtasunerako betebeharrak orokorra, Nafarroako Parlamentuak ezagutu ahal dezan egoera honetara nola iritsi den eta neurriak har ditzan, kasua bada.

Legeak bost kapitulu dauzka, hamaika artikulua, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat.

I. kapituluak zerga-zorren gerorapenerako mugak eta baldintzak ezartzen ditu. Hiru artikulua dauzka.

Lehenengo artikuluan, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 9. artikulua Nafarroako Parlamentuari aitortzen dizkion eskudantziez baliatuta, xedatzen da Osasuna klubari exijit dakiola zerga-zorraren zenbateko osoa.

Bigarren artikulua aipatzen du zein tributu-zor gerora daitezkeen. Informazio publikoa tarteko, gauza jakina da Osasunaren zerga-zorren parte bat 2013an birgeroratu zutela. Ikusita entitatearen jardura ekonomikoak aurrera jarraitu duela, litekeena da zor berriak sortu izana. Halaber, prentsaren bitartez, batzorde kudeatzaileak jakitera eman du aurreikusita dagoela urrian ordainduko zaizkiela jokalariei eta teknikariei zor zaizkien kopuruak, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak kategoriaz jaisteagatik laguntza gisa ordaintzen duen diruarekin. Nomina-ordainketak direnez, zerga berriak sortuko dituzte. Futbol taldeek daukaten jokamoldea dela eta, gainera, aurreikusteko modukoa da 2015eko urtarrilean sortzape berriak egotea, entitateak Lehen Mailan eman zuen garaitik heldutakoak. Hori dela eta, gerora daitezkeen zor gisa definitzen dira jada sortu eta likidatu diren kopuruak (kuotak, interesak edo errekaruak), ordaintzeko borondatezko epean edo aldi exekutiboan egon daitezkeenak, geroratuta nahiz geroratu gabe egon daitezkeenak, bai eta edozein zergapetze-kontzeptu dela-eta 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen sortu eta likidatzen direnak ere.

Nafarroako Parlamentuak ez duenez aukerarik izan klubaren zerga-egoera erreala ezagutzeko, zuhurtasun-printzipioa aplikatuta komenigarri da Nafarroako Gobernuari aitortzea aukera duela arau hau onetsi baino lehen entitateak izan ditzakeen geroratzearen parte bati eusteko, baina hori interes orokorarentzat, hau da, zorra kobratzeko, mesedegarria denean.

Arau honek, halaber, Osasunak Bigarren Mailan edo Adelante Ligan jarraitzearen kasuan geroratze baterako baldintzak arautzen ditu. Horien artean nabarmentzekoa da ez dela gabealdirik egonen, halako moduz non klubak hasieratik ordaindu beharko duen bere egoerak uzten diona, Zerga-administratioak behatutako ahalmen ekonomikoaren arabera.

Hirugarren artikulua biltzen du Osasuna kluba Futbol Profesionaleko Liga Nazionaleko Lehen Mailara igotzearen kasua. Inguruabar horrek berearekin dakar diru-sarrerak nabarmen aldatzea; horrenbestez, aurreko geroratzea deuseztatu eta ordaintzeko gelditzen den zorrerako beste bat onartuko da, errealitate berriari egokitutako beste baldintza batzuekin; besteak beste, ordainketa-plannaren diseinuari, interes-tasari eta bermeei dagozkienak. Azken horiei dagokienez, garrantzi berezia ematen zaio "escrow kontua" deitzen zaion bankukontuari, zeinaren existentzia hedabideen bitartez ezagutu baita; kontu horren gaineko kontrolaren bitartez, saihestu nahi da kluba finantza dadila zergak ez ordaintzearen bitartez.

II. kapituluak Zerga-administratioaren eta zordunaren jarduketa arautzen du, bi inguruabar gertatzearen kasuan: zordunaren konkurtsoa deklaratzeko eta kirol sozietate anonimoaren forma juridikoa hartzea.

Laugarren artikulua Zerga-administratioaren jarduketa arautzen du Osasunak konkurtso egoeran dagoela deklaratzeko duen kasurako; egoera horretan, nahitaezkoa eta lehentasunezkoa da gaiari buruzko merkataritza-araudia aplikatu dadila, bai eta diru-sarrera publikoei buruzko xedapen orokorretan jada jasota dauden printzipioak ere.

Bosgarren artikulua erreferentzia egiten dio kirol entitatea kirol sozietate anonimo gisa eraldatzearen kasuari. Inguruabar horrek diru-sarreraren iturri berri bat egotea ekarriko luke: bazkideen ekarpenak. Hori dela eta, sozietateak derrigor ordaindu beharko luke zor duen guztizko kopurua portzentaje bat, eta Zerga-administratioak hori halako moduan egotziko du non geroratzearen guztizko iraupena gutxituko baita.

III. kapituluak geroratzearen osagarri diren bes-telako baldintzak arautzen ditu, eta ez-betetzearen ondorioak aurreikusten ditu. Hiru artikulua dauzka.

Seigarren artikulua arautzen du Nafarroako Zerga Ogasunak nola kontrolatuko duen klubaren jardura ekonomikoa eta hartan eginen duen kontu-hartzailetza. Zerga Ogasunak bi pertsona izendatuko ditu zeregin horretarako.

. Garrantzitsua da nabarmentzea ez direla entitateko inongo organotako kide izanen, zeren eta, erakunde pribatua den aldetik, haren bazkideak baitira erabaki behar dutenak zein estatutu-klausularen arabera arautu behar diren eta zein pertsonak egon behar duten gobernu-organotan. Halaber, komeni da nabarmentzea bi "ordezkari" horien zeregina dela zaintzea zerga-betebeharrak zuzen betetzen direla, betebeharrak horiek geroratuak izan nahiz ez izan; hori dela eta, haien kontrola eta kontu-hartzea soilik esparru horretara mugatuko dira.

Zazpigarren artikulua Osasuna kluba behartzen du uneoro bere zerga-betebeharrak beteta edukitzera.

Zortzigarren artikulua aurreikusten du nolako ondorioak izanen dituen kirol entitateak ez betetzea foru lege honetan araututako betebeharrak, muga eta baldintzetatik edozein. Borondatezko epean geroratzea onartu zaien zorrak kobratzeko bide exekutiboa hastea ekarriko du, bai eta zordunaren ondarearen derrigorrezko exekuzioa ere.

IV. kapituluak bi arau biltzen ditu herritarren deiadarrari erantzuna aurkitzen saiatzeko: ezagutzea egoera honetara nola iritsi den eta arduradunak nor diren. Alabaina, kontuan hartu beharra dago zein den botere publikoen eskumen-esparrua, halako moduz non Nafarroako Parlamentuak erantzukizunak ikertu eta exijitu behar dituen, kasua bada, esparru publikoan. Jarduketa hori interes orokorra lortzera bideratu behar da, eta interes orokor hori, une honetan, zerga-zorren sorrera ezagutzea da. Horretarako, beharrezkoa da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean jasotako lege-murriztapen bat –zerga-ondorioak dituzten datuen izaera erre-serbatuari dagokiona– kentzea, Nafarroako Parlamentuari laga ahal izateko, zuzen ulertuta guztiz aparteko neurria dela, zor den kopurua izugarri handia izatearen ondoriozkoa.

Hamargarren artikulua Osasuna kluba behartzen du 2000tik 2014ra bitarteko urteei buruzko auditoria berezi bat egitera, non bereziki aztertuko baita zerga-zorren kontabilizazioa, eta Nafarroako Parlamentuari ematera ondorio fiskalak dituzten miaketak zehatz horien emaitzaren berri.

V. kapituluak artikulua bakarra, hamaikagarrena, jasotzen du, eta bertan modu subsidiarioan aplikatu beharreko araudia ezartzen da.

Lehen xedapen gehigarriak Zerga-administrazioa behartzen du indarra hartu eta bi hilabeteko epean izapidetzera geroratzea, Futbol Profesionaleko Ligan afiliatutako klub eta kirol sozietate anonimoen gaineko kontrol ekonomikoari buruzko erregelamenduko 18. artikuluan xedatuaren arabera, non eta bitartean Osasuna klubaren konkurtsoaren deklarazioa egin ez den.

Bigarren xedapen gehigarriak ezartzen du, bigarren artikuluan Gobernuari egiteko ahalmena ematen zaion zerga-zorren geroratzearen sinaduraren aurretiko baldintza gisa, Osasuna klubak modu frogagarrian egiaztatzea iraganaren analisi horretan laguntza ematearen aldeko jarrera duela.

Bukatzeko, azken xedapenak ezartzen du foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko duela indarra.

I. KAPITULUA

Zerga-zorren gerorapenerako mugak eta baldintzak

1. artikulua.

1. Osasuna klubaren oraingo nahiz etorkizuneko zerga-zorren ordainketan ez da salbuespen, barkamen edo beherapenik eginen. Moratoria bat baimendu ahalko da foru lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

2. Ez da zilegi izanen amore ematea ez auzitegian ez auzitegitik kanpo Nafarroako Ogasun Publikoak kirol entitatearen gainean izan ditzakeen eskubide ekonomikoei dagokienez, ez eta arbitrajearen menpe jartzea ere haiei buruzko gatazkak, non eta Nafarroako Parlamentuak horretarako baimenik ematen ez duen, Nafarroako Gobernuak proposatuta.

3. Osasuna kluba hartzekodunen konkurtsoan deklaratu bada, 4. artikuluan ezarritakoari begiratu zaio.

2. artikulua.

1. Jada sortuak eta likidoak diren Osasuna klubaren zerga-zorrak, geroratuak nahiz geroratugabeak, borondatezko bidean izan ala bide exekutiboan izan, bai eta 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen sortu eta likidatzen direnak ere, honako baldintzen arabera geroratu ahalko ditu, behin edo behin baino gehiagotan, Zerga-administrazioak:

a) Geroratzearen gehieneko epea ezinen da izan hogeita hamar urte baino luzeagoa, xedatzen denetik kontaktzen hasita.

b) Amortizazioan 3 urteko gabealdia eman ahalko da gehienez, printzipaleko 10 milioi bitartekoa, eta 10 milioi bitarteko aipatutako printzipal horri dagozkion interesen ordainketan, ez sortzapenean.

c) Geroratzearen ordainketa plana goranzko moduan diseinatu ahalko da. Zerga-administrazioak proportzionaltasun egoki bat ezarriko du zorraren guztizkoaren gainean urtero exijitutako ordainketa-portzentajeari dagokionez, halako moduz non haren betetzea bideragarria izanen baita zatikatzearen indarraldi osoan zehar.

d) Interes tasa izanen da Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeari buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeko 11.5 artikuluan ezarritakoa; hain zuzen, geroratzea onartzen uneari dagokiona.

e) Edozein motatako ondasun edo eskubideren gainean eratutako berme, bahitura eta kautelazko neurri guztiei utsiko zaie, foru lege honek indarra hartzean Osasuna klubari onartuta zeuden geroratzeetan eratutakoei.

f) Formula batzuk adostu ahalko dira Osasuna klubaren ondareaz xedatzea ekar dezaketenak, aurretik nahitaezko txosten juridiko loteslea emanda, zeinak berretsi beharko baitu formula horiek bateragarriak direla estatu-laguntzen arloari buruzko Europako erreferentziako legedi indardunarekin.

g) Klubak ikus-entzunezko eskubideen lagapenetik, jokalaria-traspasorako eskubideetatik edo babesletza-kontratuetatik jasotzen dituen kopuruen zati bat zergen geroratzea ordaintzeari atxikitze formulak adostu ahalko dira.

h) Zerga-zorraren geroratzea alde batera utzita, eta ikusita Osasuna klubaren arduradunek adierazitako behar saihestezina, Gobernuak eta klubak adostu ahalko dute, 4 milioi euroko gehieneko mugarekin, kasuko bideragarritasun plana tarteko, abal- edo fidantza-formula batzuk erabiltzea klubaren zirkulatzaila finantzatzeko.

2. Ezertan galarazi gabe 1. idatz-zatian xedatua, Zerga-administrazioak beren horretan eutsi ahalko die foru lege honek indarra hartzen duen egunean Osasuna klubari emandako geroratze batzuei, baldin eta neurri hori zerga-zorraren kobrantzarako ona bada.

3. artikulua.

Baldin eta Osasuna kluba Futbol Profesionalaren Liga Nazionaleko Lehen Mailara igotzen bada, 2. artikuluan adierazitakoaren indarrez emandako geroratzea deuseztatu eginen da, eta deuseztape-

naren egunean ordaintzeko dagoen zerga-zorra dela-eta Zerga-administrazioak luzapen bat edo gehiago onartu ahalko du, betiere honako baldintza hauek betez gero:

a) Geroratze berri horren gehieneko epea ezin da izan hamabi urtekoa baino luzeagoa, onartzen denetik kontatzen hasita.

b) Ez da gabealdirik emanen, ez printzipalaren amortizazioan ez interesen ordainketan.

c) Geroratzearen ordainketa plana goranzko moduan diseinatu ahalko da. Zerga-administrazioak proportzionaltasun egoki bat ezarriko du zorraren guztizkoaren gainean urtero exijitutako ordainketa-portzentajeari dagokionez, halako moduz non haren betetzea bideragarria izanen baita zatikatzearen indarraldi osoan.

d) Interes tasa diruaren legeko interesa izanen da, geroratzea onartzen den uneari dagokiona.

e) Osasuna klubari onartutako geroratzeetan eratu diren berme, bahitura eta higiezin-izaerako kautelazko neurri guztiei utsiko zaie.

f) Zerga-zorraren ordainketari diru-sarrera mota batzuen ehuneko jakin batzuk atxikitze har daitzekoen erabakiak alde batera utzita, kautelazko neurri bat hartuko da, honakoan datzana: Osasuna klubak edozein kontzeptu dela-eta dauzkan BEZik gabeko guztizko diru-sarreraren ehuneko hogeita hamar, ordainketa egiten dutenek zuzenean sartuko dute, abonua eta sarreraren kasuan izan ezik, klubaren titularitateko banku-kontu batean, eta kontu hori Zerga-administrazioak kontrolatuko du. Kontu horretatik, Zerga-administrazioak kontrakoa berariaz baimentzen ez duen bitartean, soilik Foru Komunitateari zor zaizkion zergen ordainketak egin ahalko dira, geroratuak izan nahiz ez izan. Zerga-administrazioak erabaki ahalko du klubak egiten dituen ondasun-entrega eta zerbitzu-prestazio guztien edo haietako batzuen BEZ jasanarazia banku-kontu horretan sartua izan dadila. Kautelazko neurri hori, zeinetarako ez baitira aplikatuko Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legeko 118. artikuluko ez mugak, ez baldintzak ere, indarrean egonen da geroratutako zerga-zorra ordainketa bidez azkentzen den arte.

II. KAPITULUA

Hartzekodunen konkurtsoa eta kirol sozietate anonimo bilakatzea

4. artikulua.

1. Baldin eta Osasuna kluba konkurtsoan dagoela deklaritzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-administrazioak, uztailaren 9ko

22/2003 Legeko 25. bis artikulua indarrez, epaileari eskatuko dio konkurtsoko administrazioaile hartzekodun izendatua izatea.

2. Zerga-administrazioa abstentziorako eskubi-deaz baliatuko da entitate zordunarekin daukan izaera pribilegiatuko kredituen kasuan. Halakoe-tan, halere, konkurtsoen arloko legedian aurreiku-sitako akordioak eta itunak izenpetu ahalko ditu, eta ordainketarako baldintza berezi batzuk erabaki ahalko ditu; baldintza horiek ezin izanen dira izan zordunarentzat onuragarriagoak prozesu judizialari amaiera jartzen dion akordioan edo itunean jasotakoak baino, eta ez dira funtsean bereiziko foru lege honetako 2. eta 3. artikuluetan aipatutako baldintzetatik, ordainketarako akordioa edo baldintza bereziak izenpetzeko unean klubak jokatzeko duen kategoriaren arabera.

Aurreko idatz-zatian aurreikusitako akordio eta itunak izenpetu eta egiteko, nahitaezkoa izanen da Nafarroako Parlamentuari haien edukia aurrez komunikatzea.

5. artikulua.

1. Osasuna kluba bere borondatez edo derri-gortuta kirol sozietate anonimo bilakatu eta bi hila-beteko epean, une horretan zor duen kopuru geroratuaren ehuneko hogeita hamar ordainduko du. Zerga-administrazioak kobrantza hori egotziko du ordainketa-planeko azken epetik atzera hasita, halako moduz non geroratzearen gutzizko iraupe-na gutxituko den.

2. Baldin eta eraldaketa eta ordainketa horiek gertatzen badira 2. artikuluan aurreikusitako geroratzearen indarraldian zehar, eta gero Osasuna Futbol Profesionalaren Liga Nazionalako Lehen Mailara igotzen bada, 3. artikuluan aurreikusitako aplikatuko da, eta geroratze berri horren gehiengo epea ezinen da izan hamar urtetik gorakoa, onartzen den egunetik kontatzen hasita.

III. KAPITULUA

Geroratzearen beste baldintza batzuk

6. artikulua.

1. Foru lege honek aipatzen duen zerga-zor geroratua guztiz azkendu arte, Osasuna klubaren sozietate-forma eta lehiatzen den kategoria edozein direla ere, Zerga-administrazioari karrerako bi funtzionario, entitateko organoetako kide izan gabe, honako eginkizunak beteko dituzte:

a) Kontratu, sozietate, kontabilitate eta banku arloari buruzko informazio guztia biltzea, zehazte aldera zenbateko ahalmen ekonomikoa duen, foru lege honetako 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako

zerga-gerorapenentarako ordainketa-plan bat diseinatzeko.

b) Klubaren jarduketak zaindu eta kontrolatzea, zerga-betebeharrak bete ditzan, geroratuak izan nahiz ez izan; bereziki, edozein kontzeptu dela-eta diru-sarrerak lortzeari dagokionez eta diru-sarrera horien eskuragarritasunari dagokionez.

c) Aldez aurretiko zentsura izaeraz berrikustea klubaren kontu eta eragiketa guztiak. Horretarako, a) letran adierazitako informazioa jasoko dute hilerro. Era berean, Zuzendaritza Batzarraren edo hura ordeztzen duen organoaren akta-liburua kontsultatu ahalko dute, bai eta urteko kontuak eta aurrekontua ere, haiek Konpromisarioen Batzarrari edo hura ordeztzen duen organoari aurkeztu baino lehen.

d) Zerga-administrazioak kontrolatutako banku-kontua, klubaren titularitatekoa, kontsultatzeko baimendutako pertsonak izatea.

e) Zerga-administrazioari gainerako organoari informazioa ematea kudeatzeko eskudun diren zerga-betebeharrak betetzean gertatzen diren gorabehera guztiei buruz.

2. Haien hautapena eta izendapena foru lege honek indarra hartzen duenetik hiru eguneko epean eginen du Nafarroako Zerga Ogasuna Era-kunde Autonomoko zuzendaritzaren eta kudeaketaren titularra denak, ikuskapen edo diru-bilketa eginkizunetan gutxienez ere bost urteko esperientzia frogatzen duten pertsonen artean.

3. Hartzekodunen konkurtsoren kasuan, eta egoera honek irauten duen bitartean, berariazko legediak izanen du lehentasuna. Hala eta guztiz ere, baldin eta epaileak erabakitzen badu Zerga-administrazioa izendatzea konkurtsoko administrazioaile hartzekodun gisa, horren eta artikulua hone-tako 1. idatz-zatian aipatutako pertsonen artean koordinatzeko behar diren neurriak ezarriko dira, bakoitzari dagokion eginkizunak betetzeko.

7. artikulua.

Osasuna klubak ezin izanen du inongo ez-betetzerik egin bere zerga-betebeharrak aurkeztu eta ordaintzeari dagokionez, betebeharrak horiek geroratuta egon nahiz ez egon.

8. artikulua.

1. Osasuna klubak foru lege honetan ezarrita dauden betebeharrak eta baldintzak ez betetzeak berarekin ekarriko du aldi exekutiboa hastea, ordainketarako borondatezko epean geroratu diren zorren kasuan, bai eta zor den gutzizkoa ordaintzeraino haren ondarea exekutatzera jotzea ere.

2. Ikuspegi horretatik, ez-betetzat joko da zuzendaritza batzarraren nahiz, kasua bada, hura ordeztzen duen organoaren bilerak egitea eta bilera horietan eduki ekonomikoko erabakiak hartzea, Zerga-administrazioaren ordezkariak horri buruz informatu gabe.

IV. KAPITULUA **Ikerketak**

9. artikulua.

1. Zerga-administrazioak bere eginkizunetan diharduela lortu eta landu dituen datu, txosten eta aurrekariak Nafarroako Parlamentuari laga edo komunikatu ahalko zaizkio, azken horrek eskatzen baldin badu, baita preskribituta dauden ekitaldi fiskalei dagozkienak ere. Lagapen horrek ez du barne hartuko kirol entitatearekin lotutako beste edozein zergadunen datu, txosten edo aurrekaririk; horiek, izan ere, izaera erreserbatua izaten jarraituko dute, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 105. artikulua mugen barruan.

2. Aurreko lerrokadako baldintza berekin, Nafarroako Parlamentuak eskatu ahalko du klubarekin lotutako pertsonen, agintarien eta Nafarroako Gobernuko funtzionarioen agerraldia, jardunean daudenena eta ez daudenena, Osasuna klubaren zerga-zorren sorrerari buruzko azalpenak emateko beharrezkotzat jotzen badu.

10. artikulua.

1. Foru lege honek indarra hartu eta lau hilabete epean, Osasuna klubak kanpoko auditoria bat eginen du, bere kargura.

2. Horretarako gaitasun profesionala duen pertsona fisiko nahiz juridiko bat kontratatuko du, aurrez Osasunaren kontuak auditatu ez dituen.

3. Pertsona horrek egiten duen azterketak 2000tik 2014ra bitarteko urteak hartuko ditu, eta berriaz begiratuko dio zerga-betebeharren beteazari.

4. Azken alderdi hori auditoria amaitu eta hurrengo hilabeteaz azalduko du klubaren ordezkari gorenak Nafarroako Parlamentuan.

V. KAPITULUA **Arau subsidiarioak**

11. artikulua.

Foru lege honetan aurreikusi gabe dagoenerako, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoari begiratuko zaio, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamendua arautzen duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuari ere.

Lehen xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi hilabete epean, Nafarroako Gobernuko organo eskudunek 2. artikuluan aurreikusten den geroratzea onartuko dute. Behin onartu ondoren, Gobernuak, hamabost eguneko gehieneko epean, Nafarroako Parlamentuari eskuratuko dio Osasuna klubaren bideragarritasun plana, lortutako akordioak formalizatzeko oinarri gisa erabili dena.

Hala eta guztiz ere, data hori iritsi baino lehenago Osasuna kluba konkurtsoan dagoela deklaratu bada, behar diren neurriak hartuko dira, bidezko den geroratzea ahal den epe laburrean onar dadin.

Bigarren xedapen gehigarria

Honakoa ezinbesteko baldintza izanen da 2. artikuluan aurreikusitako geroratzea formalizatzeko:

– Osasuna klubak berriaz eta modu atzerazinean onartzea Zerga-administrazioak, 9. artikuluan ezarritako moduan, Nafarroako Parlamentuari laga edo komunikatu ahalko dizkiola klubaren zerga-datu, -txosten eta -aurrekariak.

– Osasuna klubak berriaz eta modu atzerazinean onartzea lege honetako 10. artikulua, kanpoko auditoria bat egiteari dagokionez.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu dute foru lege proposamen bat, Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Osasuna kluba gure gizartean sakon errotutako entitate bat da, kirol hutsaren arloz haraindikoa eta urteetan Nafarroako gizartearentzat

erreferentzia izan dena eta gazteek kirola egin dezaten akulu. 1920an sortu zenez geroztik, Osasunak Nafarroaren irudia bultzatzen lagundu du, nazio eta nazioarteko txapelketa ofizialetan izan duen parte-hartzearen bidez, halako moduz non Nafarroako gizartearen elkargune bihurtzera heldu den.

Hezkuntzari eta haurren nahiz gazteen artean kirola sustatzeari dagokionez ere, Osasunak egin-kizun garrantzitsua izan du, eta hori zaindu eta bultzatu beharra dago.

Halaber, aitortu beharra dago Osasuna diru-sarrerara handien iturri bilakatu dela batez ere zerbitzuen sektorearentzat, sakon errotutako taldea baita, mobilizazio eta deialdi ahalmen handieneko jardura sozialetariko bat garatzen duena.

Osasuna klubak egun bizi duen egoera ekonomiko eta finantzarioak arrisku larrian jartzen du bere jardura garatzea. Gogorarazi beharra dago 2003an 1/2003 Foru Legea onetsi zela, eta haren bidez 18 milioi euroko gehieneko abal bat eman zela zenbait finantza-entitatearen aitzinean. Une honetan, abalpeko kopurua 7,2 milioi eurokoa da. Nabarmendu beharra dago Nafarroako Zerga Ogasunak zenbait jarduketa egin dituela 2008az geroztik, Osasuna klubak zerga arloko bere betebeharrak erregulariza zituan. Entitateak zenbait gerorapen eskatu zituen, araudi indardunaren babesean. Bere finantza-egoera, ordea, larriki okertu da, futbol profesionaleko liga nazionaleko bigarren A mailara jaitsi izanaren ondorioz.

Foru lege honek kirol entitate horren finantza-egonkortasuna lehengoratzeko bideratu nahi du, artikuluetan adierazitako baldintzetan haren zerga-zorra berregituratzearen bidez. Horrek guztiak erantzuten dio ez soilik Osasuna bezalako erakunde enblematiko batek jarraitzeak Nafarroako Foru Komunitatearentzat duen interesari, ezpada, beste edozein gogoetaz harago, Foru Ogasunaren interesen defentsan eman daitekeen konponbiderik onena dela uste izateari ere.

Halatan, foru lege honek helburu bikoitza bilatzen du, Osasuna klubarekin bat etorritz: alde bate-tik, klubak osorik kitatzea altxor publikoarekin hartutako betebeharrak; bestetik, betebehar horiek betetzea halako moduan non Osasunak bizirik iraun ahal izanen baitu, gaur egun bizi duen finantza-egoera larri-larria gorabehera. Beste agertoki batean, Nafarroako Zerga Ogasunarentzat ezinezkoa izanen litzateke zorra kobratzea, eta horri

gehitu beharko litzaioke Nafarroako Gobernuak erantzun beharko lukeela 1/2003 Foru Legearen kariaz finantza-entitateen aitzinean abalaturako zenbatekoari dagokionez.

Alegia, asmoa da Nafarroako Foru Komunitate-arekiko zorra osorik ordaintzea eta klubak bizirik irautea ahalbidetzea.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin daukan zorraren ordaintza berregituratzea –zorra I. eranskinean dator zehaztuta–, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzetan, eta abal bat ematea entitateak une honetan behar duen zirkulatuazalearen finantzaketa errazteko.

2. artikulua. Zorraren iraungitze baldintzatua.

1. Aipatu zerga-zorraren iraungipena baimentzen da, hain zuzen ere, Osasuna klubarekin ados jarrita hirugarren independente bati eskatzen zaion peritu-tasaziotik ateratzen den zenbatekoan, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatuz Osasuna klubaren titulartasuneko erregistro-finkak, foru lege honetako II. eranskinean zerrendatutakoak.

2. Eskualdatze horren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitatearen interes orokorreko deklaratzeko emandako ondasunak.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako tasazioa jasotzen denetik hilabeteko epean emanen da I- eranskinean zehaztutako finken gaineko eskualdatze-eskritura publikoa.

Hartara, eskualdatze-eskritura publikoa formalizatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak izendatutako pertsonari.

3. artikulua. Errentamendua eta erabilera-lagapena.

1. Baimena ematen da Taxoareko kirol instalazioak kokatuta dauden finkak Osasuna klubari errentan emateko, bai eta Sadar futbol zelaiaren erabilera hari lagatzeko ere.

2. Errentamendu kontratuaren eta erabilera-lagapenaren iraupen-epea hogeita hamar urtekoa izanen da.

3. Errentan emandako finKaren urteko errenta 75.000 eurokoa izanen da kluba futbol profesionaleko liga nazionaleko bigarren A mailan dagoen bitartean; kluba txapelketa horretako lehen mailara igotzen bada, berriz, errenta 150.000 eurokoa izatera igaroko da. Kontratua indarrean dagoen bitartean, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko

29/1994 Legeko 18.1 artikuluan xedatuarekin bat gaurkotuko da errenta.

4. Osasuna klubak bere gain hartuko ditu mantentze- eta kontserbatze-gastu guztiak, bai eta II. eranskinean azaldutako finken erabileratik heldu direnak ere.

5. Nafarroako Gobernuak eskubide lehenetsia izanen du eskualdatutako finketan kirol, hezkuntza nahiz kultur jarduerak sustatzeko; eskubide hori Osasuna klubarekin adostuta baliatuko du departamentu eskudunak. Osasunak Nafarroako Foru Komunitateko 14 urtetik beheitiko gazteentzako kirol jarduerak ahalbidetzeko konpromisoa hartzen du.

6. Errentamendu-kontratua hilabeteko epean gauzatuko da, hnen aurreko artikuluan aipatutako eskualdatze-eskritura publikoa ematen den egune-tik zenbatzen hasita.

Hartara, errentamendu-kontratua sinatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak izendatutako pertsonari.

4. artikulua. Zerga-zorraren diferentziala.

1. Osasuna klubak ondoko baldintzetan ordaindu beharko dio Nafarroako Zerga Ogasunari II. eranskineko finken eskualdatzearen bidez ase ez den zerga-zorraren diferentziala, tasaziotik heldu den zenbatekoarekikoa:

a) Interesik gabeko moratoria baten bidez, salbu eta taldea futbol profesionaleko liga nazionaleko lehen mailara igotzen bada; kasu horretan, moratoria baliorik gabe geldituko da, eta kasuko interesak exijituko dira.

b) Hogeita hamar urteko gehieneko geroratze baten bidez. Ondoko baliabideak hartuko dira hori ordaintzeko:

– Klubak ikus-entzunezkoen eskubideen lagapena dela-eta jasotzen dituen zenbatekoen % 25, zeinak jaso eta berehala transferituko baitzaizkio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

– Klubak jokalarien eskualdatze-eskubideak direla-eta (federazio-eskubideak eta eskubide ekonomikoak) jasotzen dituen zenbatekoen % 25, zeinak jaso eta berehala transferituko baitzaizkio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

– Klubak Nafarroako Gobernutik babes-kontratuak direla-eta jasotako zenbatekoen % 100.

5. artikulua. Ikuskapena eta kontrola.

Osasuna klubak bere estatutuak aldatuko ditu, kontrol batzorde bat ezartzeko. Batzorde horretan

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari bat egonen da, egiaztatze aldera klubaren kaudimena nahiz foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla –hartara, egoki irizitako dokumentu guztiak egiaztatu ahalko ditu–, harik eta zerga-zorra osorik ordaindu eta abalak iraungi arte.

6. artikulua. Zorra iraungitzea.

1. Foru lege honek Osasuna klubak Nafarroako Foru Komunitatearekin 2014ko abenduaren 31n daukan zerga-zor osoa aintzat hartzen du, zeina hemen araututako operazioak betetzearekin iraungiko baita.

2. Zehazki, eraginik gabe geldituko dira zor hori dela-eta onetsitako geroratze-, zatikatze- edo/eta premiamendu-ebazpen guztiak, eta liberaturik geldituko dira ebazpen horiek betetze aldera eratutako berme guztiak, zein ere diren.

7. artikulua. Aurrekoen erantzukizunak.

Foru lege hau onesteak ez ditu erantzun beharretik salbuesten Osasuna klubak zituen aurreko administratzaileak, beren karguetan jardutean erru edo zabarkeria larriz egindako egintza edo ez-egiteengatik.

8. artikulua. Abala baimentzea.

1. Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrari baimena ematen zaio Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat eman dezan Osasuna klubaren alde, gehienez ere 4 milioi eurokoa, bere jardura finantzatzeko beharrezkoak dituen kreditu nahiz mailegu operazioak egin ahal izatea bermatzeko.

2. Abalak gehienez ere hamabost urteko epea izanen du. Entitate abalatuak jasotako dirua entitate hartzekodunari edo hartzekodunei osorik itzultzean bukatuko dira horren eragin guztiak.

3. Abal hori emateko baldintzak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat emateko otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legean ezarritako berberak.

4. Otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legearen bidez Osasunaren alde emandako abalak estalitako kreditu nahiz mailegu operazioen nobazio kasuan, abalak indarrean jarraituko du gehienez ere hamabost urteko epean, operazio horien nobazioa formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Azken xedapenetan lehena. Eskumen-esparrua.

Foru lege hau onesten da Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa daukalako, bere foru araubidearen indarrez, finantza eta zerga alorrean nahiz kirolaren sustapenaren alorrean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 45. eta 44.14 artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoarekin bat eta lege organiko horretako 26. artikuluko a) letran ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen baitio, Nafarroako Parlamentuak alde aurretik baimena emanaz gero, abalak eta bermeak eratzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

GERORATZE- ESPEDIENTEA	ZORMOTA	ORDAINTZEKE DAGOEN PRINTZIPALA	INTERESAK+ERREKA RGUAK	2014-11-28ra BITARTEKO INTERESAK	GUZTIRA
09/40511	BEZeko ARRUNTA ETA ATXIKIPENAK	8.154.825, 35		8.735,72	8.163.561,07
12/71798	ARRUNTA ETA PREMIAMENDUA	7.031.081, 48	1.516.718,32	1.405.253,13	9.953.052,93
12/71797	ARRUNTA	3.749.210, 43	37.737,48	633.473,58	4.420.421,49
12/74796	PREMIAMENDUA	194.646,9 1	6.893,49	34.363,48	235.903,88
12/71799	PREMIAMENDUA	885.305,5 7	223.751,57	108.055,79	1.217.112,93
12/71800	ARRUNTA	6.822.562, 39	122.741,73	832.726,45	7.778.030,57
13/82441 AKTAK	ATXIKIPEN ARRUNTAK	2.550.616, 18	471.599,59	211.037,28	3.233.253,05
13/82422 AKTAK	ZEHAPEN ARRUNTA	1.215.470, 48	0,00	100.567,69	1.316.038,17
GERORATZEKE:	ATXIKIPENAK ETA BEZa	15.111.28 1,69	52.942,64	384.394,06	15.548.618,39
	BEZa ETA ATXIKIPENAK, 2014-12-31ra bitartean	1.160.000, 00			1.160.000,00
	GUZTIRA	46.875.000,48	2.432.384,82	3.718.607,18	53.025.992,48

II. ERANSKINA

IZENA	IDIFUR	Katastroko erref.	ERREGISTROA/TALA	LIBURUA	LIBURUKIA	FOLIOA	FINKA	INSKRIPZIOA
KIROL DOTAZIOETARAKO ERAIKIN BUKATUA, SADAR KALEA, 59-D, IRUÑA	31020000248953	05/1648/01/001	Iruñeko 7. zenbakiko ondasuna	508	508	4	17394	2.a
Pisua, Alfonso Borrokalaritaren kalea, 11-2G, Iruña		04/0199/01/034	Iruñeko 2. zenbakiko ondasuna	333	4328	46	20175	3.a
Pisua, Alfonso Borrokalaritaren kalea, 11-2H, Iruña		04/0199/01/035	Iruñeko 2. zenbakiko ondasuna	333	4328	49	20177	3.a
DOTAZIOETARAKO ERAIKIN BUKATUA ETA LURZATIA, OSASUNA S-p poligonoari, TAXOAREKO (ARANGUREN) 3. poligonoako 571. ETA 819. LURZATIAK			Agoizko 1. zenbakiko ondasuna	177	3383	105	11039	1.a
HIRI-LURZORU FINKATU GABEA ETORKIZUNEKO ENPRESA PARKEKO e.u.-ko LURSAILEAN, TAXOAREKO (ARANGUREN) 571. LURZATIAN.	31001001201717	03/0571/02/001 03/0571/03/001	Agoizko 1. zenbakiko ondasuna	183	3431	172	11485	1.a
LURZORU URBANIZAGARRIA, HEZKUNTZA PUBLIKOKO DOTAZIOETARAKO ERABILERAKO, XXIII. UNITATE INTEGRATUA KALEA, So-1 ORUBEA, IRUÑA	3,102E+13	05/1141/01/001	Iruñeko 7. zenbakiko ondasuna	162	369	126	9871	6.a

♦ 11039 errejistro-finka dagokio 3. poligonoako bi katastro-lurzalderen baturari: 571 lurzailko C azpierzemua eta 819 lurzailaren zati bat (Taxoare kirol, atsia eta gastronomia elkartearen igerileku-instalazioetarako bereizilako 19.141,00 m²-ko zatia deskontatu behar da).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako hiri-merkataritzako guneetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Merkataritzak funtsezko eginkizuna dauka hirien bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean; izan ere, ahalmena dauka aberastasuna eta enplegua sortzeko, bizikidetasun-eremuak sortzeko eta hiri-kalitatea hobetzeko. Hiria antolatzeo tresna bat ere bada, eta hiri-bilbea orekatu eta egituratu dezake.

Halaber, hiriguneak dinamizatzen laguntzen du neurri handi batean, elkarri lagundu eta hauspo

ematen dieten ekonomia-, gizarte- nahiz egoitzajarduerek partekatutako inguru atseginak sortuz eta merkataritza txiki eta ertainarentzako aliatu estrategiko bihurtuz.

Gaur egun, merkataritza-ereduak hiru talde nagusitan sailka ditzakegu: merkataritza-gune itxiak, merkataritza-eremu edo -kaleak eta merkataritza-gune irekiak (horiek izan dira sortu diren azkenak).

Azken eremu horiek, zeinetan interes-talde ugari zuzenean parte hartzen baitute, elkarren arteko harreman interaktiboa dutenak –nahiz eta horien helburuak ez datozen beti bat–, kudeaketa-eredu bateratu bat behar dute eraginkorrak izan nahi badute, horrek aukera ematen dielako beren potentzialtasun guztiak garatzeko eta sustapen nahiz kudeaketa estrategiak abiarazteko, beste edozein merkataritza-gunek bezala, eta finantza-sistema bereki bat edukitzeko.

Eredu horretan, operatzaile pribatuen eginkizunaz gain, erabakigarria da udalen esku-hartzea, bai dituzten eskumenengatik, bai eremu publikoaren titularrak izateagatik, baina baita Nafarroako Gobernuarena ere, merkataritzaren arloan nahiz ekonomia- eta enpresa-sustapenaren arloan dituen eskumenengatik.

Ikuspegi horretatik hirigunearen kudeaketa batez ere oinarritzen da merkataritza-eredu baten ezarpenean –horretarako, dauden marketin-tekni-ka guztiak aplikatu behar dira–, espazioaren funtzionaltasuna eta xarma hobetzen duen hirigintza-eredu baten garapenean eta haren errentagarritasuna ziurtatuko duen ekonomia- eta finantza-eredu batean.

Gaur egun, hiriko merkataritza-eremuak kudeatzeko bi eredu generiko daude: alde batetik, kudeaketa pribatu hutsean oinarritutako eredu, merkataritza-eremuak garatu ohi dutena. Eta beste

alde batetik, lankidetzaren publiko-pribatuko eredu berria, batik bat mundu anglosaxoian azken hamarkada hauetan azaldu dena. Business Improvement Districts (BID) edo enpresa-hobekuntzako barrutiak izenekoak dira.

Barruti horiek eremu publikoaren eta pribatuaren arteko elkargunean jarduten dute. Erakunde horien gidaritzaren pribatua da, eta baimen publikoa dute; zerbitzu publiko gehigarriak ematen dituzte eremu geografiko zehatz batean, jabeek edo/eta merkatariek zerga bat ordaintzean urtero sortzen diren diru-sarrerei esker.

Sektore pribatuaren ekimen bateratu horrek balio izan du hiriguneak biziberritzeko eta hobetzeko, kale publikoetan zerbitzu gehigarriak emanez. Hirien erdialdean erosketak egiteko ingurune atsegin bat eskaintzen zaie hiritarrei, eta hiri-deszentralizazioaren ondorioak arintzen laguntzen dute, enpresaburuek eta kontsumitzaileek hiriguneetako beren jarduerak aldirietara eramatea ekidinez.

Baina BID horiek ez dira soilik merkataritza txikiak aldirietako merkataritza-guneen aurrean darabilten estrategia bat; izan ere, eremu horretan emandako zerbitzuak finantzatzeko eta hobetzeko tresna eraginkor bat eskaintzen diote toki administrazioari, zerga orokorrak igo behar izanik gabe.

Bizi dugun egoera ekonomiko honetan, zeinetan gero eta beharrezkoagoa baita lankidetzaren publiko-pribatuari ekitea bi eremu horietan esku-sartzerik izan gabe erronka gero eta premiazkoagoa da, eta finantzaketa-zailtasunei konponbidea emateko modu bat izan liteke.

Formula mistoen aldeko apustua guztiz onargarria da une honetan bi aldeentzat. Horrela, bada, ukalezina da BID horiek onura besterik ez dakartela garbitasunari, kaleen mantentzeari, zaintzari eta segurtasunari, hiri-diseinuari, eremu publikoaren erregulazioari, garraioaren antolamenduari eta salmenta-igoerari begira.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urratsak egin ditzan, Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa-ereduak ezartzeari dagokionez, Business Improvement Districts izeneko ereduaren oinarrituta, pizgarri-programak garatuz eta horretarako beharrezkoak diren arau-aldaketak eginez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Honako ekimena sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Euskarari buruzko Nafarroako 18/1986 Foru Legearen arabera, III. tituluaren izenburua komunikabide sozialei buruzkoa da. 27. artikulua araber, Administrazio Publikoari dagokio komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskararen presentzia mailaz mailakoa sustatzea. Zehazki, honakoa dio: "Administrazio Publikoek sustatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatu ditu".

Legeari eutsiz, Nafarroan euskara arautzen duen legeari jarraiki, Administrazio Publikoak euskararen erabilera arautu behar du komunikabide sozialetan. Ildo honetan, lege-hauste bat dagoela esatera ausartu gaitzke, ikusirik, esate baterako, euskaraz, eremu euskaldunean gainera, aritzen diren komunikabideak azken 25 urteetan gutxienez diruz lagunduak izan direnak, azken 3 urteotan diru-laguntzarik gabe geratu direla.

Hau gutxi balitz, une honetan komunikabide orotan ez dago inolako neurririk, kuotarik, betebeharririk euskara erabil dezaten inolako proportziotan. Mailaz mailakotasuna urratua da beraz, eta euskarazko komunikabideak ez dira inolaz ere legeak aipatzen duen neurrian laguntza ekonomiko eta materialen gaineko plangintzarekin ari.

Afera larria, kontuan hartuta, gainera, Espainiar Estatuko administrazioek bete beharko lituzketela Europako Hizkuntza Gutxituen Gutunak ezartzen dituen konpromisoak. Horren harira, gogora ekarri nahi dugu Europako Kontseiluko Ministroen batzordeak egindako txostenetan nafar gobernuari hainbat aholku helarazi dizkiola hedabideetan euskara modu egonkorrean sustatzeari begira.

Horixe bera eskatu dio hainbatetan Parlamentuak nafar gobernuari 2009az geroztik, hitzarmenak sina ditzan euskaraz lan egiten duten hedabideekin. Arartekoak ere aholkatzen dio urtez urteko aurrekontuetan hedabideetan euskara sustatzeko partida bat jasotzea. Baina nafar gobernuak muzin egin dio eskaerari orori.

Eta egoera honek kinka larrian jartzen ditu euskaldunen hizkuntza eskubideak, izan ere, Administrazio Publikoak ez baitauka inolako araubiderik, ez baliabide esleipenik, legeak esaten duena betetzeko. Orain arte bete izan den gutxitasuna ezerezean geratu dela ere gehitzen ahal dugu.

Hizkuntza gutxituaren biziraupenerako ezinbestekoa da komunikabide sozial eraginkorrak martxan izatea, hizkuntza hori agerian gera dadin, ikusezintasunetik plazara, jendartera jauzi egin dezan.

Komunikabide sozialetan euskararen presentziaz ari bagara, ezinbestekoa da irratiez, telebistaz, aldizkarietaz, egunkarietaz eta IKTei buruz legeak esaten duena beharreko baliabideez hornitzea.

Honengatik guztiarengatik, Euskararen Aholku Batzordean ebazpen bat onartu zen eta, akordio horren ildotik, ebazpen proposamen hau ekartzen dugu, Parlamentuak berriro ere nafar gobernuaren premia dezan:

Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek Nafarroan euskararen berreskurapen eta garapenean egiten duten lanaren

garrantzia eta nafar herritarroi eskaintzen diguten zerbitzua.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 18/1986 Euskararen Legea bete dezan, euskara hedabideetan sustatzeko neurriak hartzeari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuak hainbatetan egin dion eskaera bete dezan, alegia, hedabideekin hitzarmenak lantzeko, euskarazko hedabideen bizi-raupena eta lana modu egonkorrean ziurtatze aldera.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrekontuetan euskara sustatzeko diru partida gauza dezan, eta diru-laguntza deialdia argitara dezan, diru kopuru nahikoarekin, eta ahalik eta lasterren bana dezan. Gainera, deialdia egiteko irizpideak azken urteetan erabilitakoak izan daitezela, alegia, euskara hutsez jarduten duten hedabideak lehenestea diru-laguntzak esleitzerakoan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 5ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Printzea eraikineko kontsulta espezializatuetakoa langile-gabezia azter dezan, sendagile profesionalen laguntzarren gaixoei zerbitzurik onena ematen.

Socialistas de Navarra taldeak detektatu duenez, Vianako Printzea eraikinean –zehazki, pedia-

triako kontsultetan– langile-gabeziak behartzen du erizaintzako laguntzaileek aldi berean jardun dezaten elkarren aldameneko kontsulta ezberdinetan; horrek zenbait ondorio negatibo dakar kontsultek behar bezala funtzionatzeko, gure ustez ahal den ondoen gainditu beharrekoak.

Gure ustez, langile-gabezia horiek –antza denez, aurrekontu faltagatik justifikatuak– haserrea sortzen ari dira profesionalen artean, gero eta zailtasun handiagoak dituztelako gaixoei behar bezalako zerbitzua emateko; izan ere, medikuek sarritan eman behar izaten dizkiete gaixoei berez erizaintzako laguntzaileenak diren zerbitzuak, horiek une horretan aldameneko kontsultan daudelako, beste beharrian batzuei erantzuten.

Halatan, garbi dago medikuaren haserreari laguntzailearen beraren haserrea gehitu behar zaiola, zeren laguntzaileak garbi ikusten baitu ezin dituela bete, gustatuko litzaiokeen profesionaltasunarekin, lehen erizaintzako ez profesional batek baizik eta bik betetzen zituzten funtzioak.

Horrek guztiak ezinbestean eragiten du eragin-kortasunik eza, azkenean gaixoak ordaintzen duena, bai atzerapenak gertatzen direlako gaixoa artatzean, bai atzerapenak gertatzen direlako txostenak egitean, bai itzarote-zerrendak handitzen direlako; edo akatsak gertatzen direlako, zeinen ondorioz berriro itzuli behar izaten baitira kontsultetara –zenbait kasutan, hilabeteak itzaroten egon ondoren egindako kontsultetara–, profesionalak ezin izan duenean lehen bisitatik

ondorio argirik atera, kontsulta presaz egiteagatik edo kontsultak gaizki funtzionatzeagatik.

Gauzak horrela, Socialistas de Navarra taldearen ustez, nahitaez bilatu behar da konponbide bat, ordena galdua berrezartzea edo lehengo egoerara itzultzea ahalbidetuko duena, non kontsulta bakoitza sendagileak eta erizaintzako bere laguntzaileak egiten zuten, konbentziturak baikaude horrek ekarriko duela kontsultak hobeto egitea, profesionalak pozago egotea eta, azken batean, haiek motibazio handiagoa edukitzea bere lanean, herritarrei zerbitzu hobea ematea ekarriko baitu.

Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen

hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuaren bidez behar adina langilez (medikuak eta erizaintzako laguntzaileak) horni ditzan kontsulta espezializatuak –zehazki, pediatriakoak–, ziurtatzearen kontsulta horiek hobeki funtzionatzea, zerbitzu medikoa hobea izatea eta profesionalak pozago egotea, zerbitzuaren kalitatea hobetzea ekarriko duena, aldi berean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 2015 eta 2016 urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat aurkez dezan, 2015 eta 2016 urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2008an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Legea onetsi zuen. Planak helburu zeukan toki azpiegiturak eta udal eskumeneko zerbitzuetarako inbertsioak egin ahal izatea 2009tik 2012ra bitarte. Geroago, ekainaren 22ko 68/2009 Foru Aginduan zehaztu ziren toki entitate bakoitzeko obra-kopurua, horietako bakoitzaren kostua, toki entitateak finantzatu beharreko ehunekoa, Nafarroako Gobernuak finantzatu beharreko ehunekoa eta horietako bakoitza egiteko urtea. Aurretiaz, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legeak ezarria zuen 2009ko ekitaldiko obrak egin ahal izateko kapital-transferentzien zenbatekoa. Transferentzia arruntekin batera egina zuen, ordura arte ohikoa zen moduan.

Halere, obra horietako asko ez ziren egin aurreikusitako datan, Nafarroako Gobernuak berak erabakia zeukalako obra horien finantzaketa atzeratzea, likidezia ezagatik. Halatan, lau urtean egin beharreko plan bat zena bi urte gehiago luzatu zen –2013a eta 2014a–, eta martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea onetsi behar izan zen horretarako.

Orain dela gutxi, lege proiektu mengel bat eztabaidatu dugu Parlamentu honetan, “zeinaren bidez ezartzen baitira toki ogasunek transferentzia arruntaren bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa

2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako” 2008ra bitarte ohikoa zenaz bestela, azken lege proiektu horrek ez du zenbatekorik zehazten kapital-transferentzietarako.

Egungo egoera ikusita –aurki bukatuko da indarrean dagoen luzapena, eta bi urte igaro dira Nafarroako Gobernuak finantzaketa berri bat proposatu gabe beharrezkoak diren toki azpiegiturarako–, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako herrietan 2015ean eta 2016an egin beharreko toki inbertsioen plan berri bati buruzko lege proiektu bat aurkez dezan.

2. 2008ko toki inbertsioen planean bezala, plan berriak Nafarroako Gobernuaren eta toki entitate-

en artean partekatutako finantzaketa bidez eginiko obrak jaso daitezzen, ehuneko 70-30eko proportzian.

3. Aurreikusitako finantzaketaren parte bat erre-serba dadin udal bakoitzak libreki erabakitako obrak egiteko.

4. Toki inbertsioen plan berri honetara bideratutako urteko zenbatekoa ez dadin izan 55 milioi euro baino txikiagoa, Nafarroako udalek proposatutako obra guztien artean banatu beharrekoa, 2008ra arte ohikoa zen moduan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 6an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Xabier Lasa Gorraiz

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak landa eremuko eskolekiko konpromisoa adierazten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak landa eremuko eskolekiko bere konpromisoa adierazten du, lurral-

dearen antolamenduari begira oreka ematen duten aldetik eta eskola ingurunean txertatzeko ezinbesteko neurri gisa.”

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren jokabidea arbuiatzen baitu, zeinak Ogasun Ministerioari eskatu baitio Nafarroari 1.513 milioi euro kobra diezazkion Volkswagenen kotxe-salmentako BEZaren bilketagatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Alderdi Popularraren sostengua duen Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren jokabidea, eta, zehazki, Gobernu horretako Ekonomiako kontseilari Enrique Ossorio jaunak Ogasuneko ministro Montoro jaunari igorritako gutuna, zeinean eskatu baitio kobra ditzan Volkswagenen kotxeak 2007tik 2012ra bitarte saltzearen BEZagatik Estatuko Zerga Agentziak Nafarroako Foru Komunitateari eskatzen dizkion 1.513 milioi euro.

2. Nafarroako Parlamentuak Madrilgo Erkidegoko Gobernuari eta, zehazki, erkidego horretako Ekonomiako kontseilari Enrique Ossorio jaunari

exijitzen dio berehala atzera egin eta gutun hori erretira dezan, Nafarroaren barne-azuetan eta nafarren interesetan eta eskubideetan bidegabeki, desleialki eta ezjakinen gisa eskua sartzea delako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, Nafarroako herritarrek eta Nafarroako Parlamentuko talde politikoek aho batez edo gehiengo handiz adierazitakoarekin bat, manten dezan Nafarroak ez duela ordaindu behar euro bakar bat ere Volkswagen enpresaren 2007tik 2012ra bitarteko salmenten BEZaren erreklamazioa dela-eta”

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Berlingo Harresiaren erorketaren 25. urtemugaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Berlingo Harresiaren erorketaren 25. urtemugaren ospakizunarekin, eta askatasunaren, konkordiaren eta

herrikideen arteko bizikidetasunaren garaipena nabarmentzen du. Herritarrek banatzeak txirotzea dakar; batzea, aldiz, guztientzako aberastasun eta aurrerabide iturri da”

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa.*EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkeztutako galdera, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gaixoen hitzordura huts egiteagatik sendagileen kontsultak bertan behera gelditu izanari

dagokionez, 2012ko eta 2013ko datu hauek jaso nahi ditut:

– Oinarrizko osasun laguntzan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta kontsulta guztien aldean egiten duten ehunekoa.

– Espezialistaren kontsultetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

– Ebakuntzetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

– Larrialdi zerbitzuetara joan eta azkenean artatuak ez izatea erabaki zuten pertsonen kopurua (eta ehunekoa)

– Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dituen bestelako zerbitzuetan bertan behera utzitakoen kopurua (eta ehunekoa), kasuko unitatea zehaztuta.

Orobat eskatzen dut horrek guztiak Nafarroako Osasun Zerbitzuari ekarri dion kostu ekonomikoaren zehaztapena, modu orokorrean nahiz arloz arlo zehaztuta.

Iruñean, 2014ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

Galdera, hitzordura ez joateagatik 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan aplikatu diren bajei buruzkoa.

EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkeztutako galdera, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA202

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak Gaixoen Erregistro Orokorra jarri zuen abian 2012an. Espezialistaren kontsultarako hitzordua jaso eta hitzordura justifikaziorik gabe huts egiteagatik 2012an, 2013an eta 2014an itxarote-zerrendetatik kendutako gaixoen kopuruaz galdetzen dut.

Iruñean, 2014ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

Galdera, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Ikusita Tuterako KPF enpresan hartzekodunen konkurtso-prozesu bat ireki dela, Nafarroako Gobernuak bera konkurtso horretan pertsonatu dela eta enpresa interesdunek eskaintza lotesleak igor ditzaten konkurtso-administratzaileek ezarritako epearen amaiera gertu dagoela, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak zer urrats egiten ari da KPF enpresak egun bizi duen egoera dela-eta?

2. Nafarroako Gobernuak zer itxaropen dauka Foru Komunitatean enpresa nahiz enpleguak mantentzea lortzeko dagokionez?

Iruñean, 2014ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaraneke, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak erantzuna eman zien 8-14/PES 150 espedienteko galderei –2014-08-21ean erregistratu ziren–. Zehazki, galdera horietako hirugarrenean honakoa galdetu genuen hitzez hitz:

3. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek arlo horretan baliatzen den kontusail bakoitzaren eta zenbatekoaren berri ba al dute?

Ondorengo hau izan zen igorritako erantzuna:

“Ez da ulertzen nori buruzkoa den galdera. Nolanahi ere, Nafarroan kreditatuta dauden NAGELek urtero kontabilitate-auditoria bat aurkeztuko dute.”

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, honakoa ezartzen da 14. artikuluan. “Entitate lankideen betebeharra”:

“g) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren esku jartzea, berak hala eskatzen badu, bere

kreditaziopean egindako lanen gaineko informazio eta dokumentazio guztia.

h) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari adieraztea kreditazio eskaeran aurkeztutako datuetan izandako aldaketa guztiak, hala bide denean aldaketa horri baimena eman dakion.

i) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari urtero txosten bat bidaltzea, beranduenez urteko lehenbiziko hiru hiletan, honako gaiekin:

Egindako jardueren eta NAGELak duen egoeraren gaineko txostena.

Balantze eta aurrekontuak, eta haien osagarri, esplikazio txosten bat.

Auditoriako txosten bat.

Kontu korronteen erabilgarritasun eta mugimenduen gaineko txostena.

Langileen kontratu egoeraren gaineko txostena, eta, hala bide denean, gobernu, zuzendaritza eta ordezkaritza organoetako aldaketen gainekoa.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskatzen dizkion beste informazio guztiak.

j) Edozein okerkeria, abusu edo irabazi bidegabe jakiten duenean, haien berri ematea eta, hala bide denean, salatzea; irabazi bidegabekotasun joko da beste herri batean egoitza duten adingabeak adoptatzeko gastuak berdintzeko behar direnak ez bestelako hobarri finantzarioak.”

NAGELen eta haien zerbitzuetara jotzen duten pertsonen arteko kontratu-harremanean –halakoa eskuratu baitugu–, kasuan kasuko “ordainketa-baldintzak” ezartzen dira, bai eta espedientearen aurrekontua ere.

Halaber, adopzio prozesuan zehar aldaketa batzuk egiaztatu ditugu bi aldeek hasieran izenpetu zituzten kopuruetatik.

Ulertu genuen egindako 7 galderen testuinguruan inplizitu zeudela 3. galderaren izaera eta testuingurua, baina agerian geratu denez galdera ez zela behar bezain argia, galdera berregin dugu.

Galdera idatziak:

NAGELen eta haien zerbitzuetara jotzen duten pertsonen arteko kontratu-harremanean ordainke-

ta-baldintzen klausula bat eta espedienteari buruzko aurrekontu bat ezartzen dira;

1. Ba al daki Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, hasierako kontratuan izenpetutako kopuruetan igoerak gertatzen direla adopzio prozesuan zehar? Baiezkoan,

2. Ba al dute Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, kontrol-ahalmenen bat bi aldeek egindako kontratuan hasiera batean ezarritako kopuruetan izaten diren igoeren gainean?

3. NAGELek aurkezten duten urteroko kontabilitate-auditorian, zehazten al dira ordainketa-

baldintzen klausulei eta espedientearen aurrekontuari buruzko hasierako kontratuarekin bat ez datozen igoera horiek? Baiezkoan,

4. Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, uste al dute igoera horiek zorrozki bat datozela araudi indardunarekin? Baiezkoan,

5. Uste al du Gizarte Politiketako Departamentuak aipatutako igoerak bat datozela, arrazoiz, egiazko kostuekin?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentua koordinatu ote zen beste autonomia erkidego batzuetako organo kideekin, 256/1996 Foru Dekretuan jasotako kontrola eta ikuskapena egiteko.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentua koordinatu ote zen beste autonomia erkidego batzuetako organo kideekin, 256/1996 Foru Dekretuan jasotako kontrola eta ikuskapena egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak erantzuna eman zien 8-14/PES 151 espedienteko galderei –2014-08-21ean erregistratu ziren–. Zehazki, honakoa erantzun zuen :

“Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago”.

Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuko xedapen indargabetzaile bakarrak honakoa dio: “1. Indargabetzen da ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua (arautzen du nola kreditatu nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak).” Nolanahi ere, baieztatu daiteke uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak, 26. artikuluan, ia hitzez hitz testu bera zuela.

• Ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuko VIII. kapituluak honako hau dio kontrolari eta ikuskapenari buruzkoa den 27. artikuluan:

“27. artikulua. Entitate laguntzaile batek beste komunitate autonomoetan ere jasotzen badu gaikuntza, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar den koordinazioa ezarriko du komunitate haietako organo eskudunekin, kontrola eta ikuskapena hobeki egin ahal izateko”.

- Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan, non nazioarteko adopzioaren gaitan lankide diren entitateak arautzen diren, honakoa ezartzen da 26. artikuluan.

“26. artikulua. Autonomien arteko koordinazioa.

NAGEL batek Nafarroakoaz gainera beste Komunitate Autonomo batean edo batzuetan hartzen duenean kreditazioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar bezalako koordinazioa ezarriko du haietan eskudun diren organoekin gainbegiratze eta kontrol lanak egiteko;”

Argi dago arlo hau ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuak arautu zuela uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretua NAOn argitaratu zen arte, baina “autonomien arteko koordinazioari” dagokionez, biek asmo eta kontzeptu bera dute.

Indargabetutako lege dekretuaren aipamenak erreferentzia egiten die testuingurua ezarri zeneko datari eta 8-14/PES 151 espediente-zenbakiko galderei erantzuteko datari.

Horrenbestez, agerikoa denez “galderak ezin izan direla behar bezala azaldu”, gisa honetara birformulatu ditugu:

Galdera idatziak:

- Uztailaren 22ko 256/1996 Foru Dekretua, non nazioarteko adopzioaren gaitan lankide diren entitateak arautzen diren, indarrean egondako urteei dagokienez:

1. Koordinatu al zen Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuko organo eskuduna beste autonomia erkidego batzuetako gisa bereko organoekin –entitate horiek lan bera egiteko gaituta duden erkidegoetakoekin–, 256/1996 Foru Dekretuan ezarritako kontrola eta ikuskapena egiteko? Baiezkoan,

2. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako entitate lankide-

en nazioarteko adopzioaren prozesuaren dinamika askoz ere azkarragoa dela Nafarroako Foru Komunitatean baino? Baiezkoan,

3. Zer arrazoi zeuden Nafarroako Foru Erkidegoko nazioarteko adopzioaren entitate lankideen epeak luzatzeko, beste lurralde batzuetakoan aldean?

4. Organo eskudunak zer neurri ezarri zituen, antzekoak izan zitezkeen Nafarroan lan egiten duten entitate lankideen adopzio-epeak eta beste autonomia erkidego batzuetan lan egiten dutenenak?

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuari dagokionez, non nazioarteko adopzioaren gaitan lankide diren entitateak arautzen diren:

5. Koordinatu al da Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuko organo eskuduna beste autonomia erkidego batzuetako gisa bereko organoekin –entitate horiek lan bera egiteko gaituta duden erkidegoetakoekin–, 168/2002 Foru Dekretuan ezarritako kontrola eta gainbegiratzea egiteko? Baiezkoan,

6. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako entitate lankideen nazioarteko adopzioaren prozesuaren dinamika askoz ere azkarragoa dela Nafarroako Foru Komunitatean baino? Baiezkoan,

7. Zer arrazoi dago Nafarroako Foru Erkidegoko nazioarteko adopzioaren entitate lankideen epeak luzatzeko, beste lurralde batzuen aldean?

8. Organo eskudunak zer neurri ezarriko ditu, antzekoak izan daitezkeen Nafarroan lan egiten duten entitate lankideen adopzio-epeak eta beste autonomia erkidego batzuetan lan egiten dutenenak?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa Nafarroako nazioarteko adopzioarako entitate lankideek bete ote dituzten haien zerbitzuak eskatu dituzten pertsonekin adostutako kontratu-tarifak.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa Nafarroako nazioarteko adopzioarako entitate lankideek bete ote dituzten haien zerbitzuak eskatu dituzten pertsonekin adostutako kontratu-tarifak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Gizarte Politiketako kontseilariak erantzuna eman zien 8-14/PES 151 espedienteko galderei —2014-08-21ean erregistratu ziren—. Zehazki, honakoa erantzun zuen :

“Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago”

Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuko xedapen indargabetzaile bakarrak honakoa dio: “1. Indargabetzen da ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua (arautzen du nola kreditatu nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak).” Nolanahi ere, baieztatu daitezke uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak, 26. artikuluan, ia hitzez hitz testu bera zuela.

• Ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuko VIII. kapituluak honako hau dio kontrolari eta ikuskapenari buruzkoa den 27. artikuluan:

“27. artikulua. Entitate laguntzaile batek beste komunitate autonomoetan ere jasotzen badu gaituntza, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar den koordinazioa ezarriko du komunitate haietako organo eskudunekin, kontrola eta ikuskapena hobeki egin ahal izateko”

• Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, honakoa ezartzen da 26. artikuluan.

“26. artikulua. Autonomien arteko koordinazioa.

NAGEL batek Nafarroakoaz gainera beste Komunitate Autonomo batean edo batzuetan hartzen duenean kreditazioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar bezalako koordinazioa ezarriko du haietan eskudun diren organoekin gainbegiratze eta kontrol lanak egiteko”

Argi dago arlo hau ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuak arautu zuela uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretua NAOn argitaratu zen arte, baina “autonomien arteko koordinazioari” dagokionez, biek asmo eta kontzeptu bera dute.

Indargabetutako lege dekretuaren aipamenak erreferentzia egiten die testuingurua ezarri zeneko datari eta 8-14/PES 151 espediente-zenbakiko galderei erantzuteko datari.

Horrenbestez, agerikoa denez “galderak ezin izan direla behar bezala azaldu”, gisa honetara birformulatu ditugu:

Galdera idatziak:

• Uztailaren 22ko 256/1996 Foru Dekretua, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, indarrean egondako urteei dagokienez:

1. Koordinatu al zen Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuko organo eskuduna beste autonomia erkidego batzuetako gisa bereko organoekin —entitate horiek lan bera egiteko gaituta duden erkidegoetakoekin—, 256/1996 Foru Dekretuan ezarritako kontrola eta ikuskapena egiteko? Baiezkoan,

2. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako entitate lankideen nazioarteko adopzioarako prozesuaren dinamika askoz ere azkarragoa dela Nafarroako Foru Komunitatean baino? Baiezkoan,

3. Zer arrazoi zeuden Nafarroako Foru Erkidegoko nazioarteko adopzioarako entitate lankideen epeak luzatzeko, beste lurralde batzuetako aldean?

4. Organo eskudunak zer neurri ezarri zituen, antzekoak izan zitezkeen Nafarroan lan egiten duten entitate lankideen adopzio-epeak eta beste autonomia erkidego batzuetan lan egiten dutenentzako?

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuari dagokionez, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren:

5. Koordinatu al da Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuko organo eskuduna beste autonomia erkidego batzuetako gisa

bereko organoekin –entitate horiek lan bera egiteko gaituta duden erkidegoetakoekin–, 168/2002 Foru Dekretuan ezarritako kontrola eta gainbegiratzea egiteko? Baiezkoan,

6. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako entitate lankideen nazioarteko adopzioarako prozesuaren dinamika askoz ere azkarragoa dela Nafarroako Foru Komunitatean baino? Baiezkoan,

7. Zer arrazoi dago Nafarroako Foru Erkidegoko nazioarteko adopzioarako entitate lankideen epeak luzatzeko, beste lurralde batzuen aldean?

8. Organo eskudunak zer neurri ezarriko ditu, antzekoak izan daitezkeen Nafarroan lan egiten duten entitate lankideen adopzio-epeak eta beste autonomia erkidego batzuetan lan egiten dutenentzako?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideetara jo zuten pertsonen entitate lankideak mantentzeko jarritako diru kopuruei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideetara jo zuten pertsonen entitate lankideak mantentzeko jarritako diru kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako

galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak erantzuna eman zien 8-14/PES 153 espedienteko galderari —2014-08-21ean erregistratu ziren—. Zehazki, honakoa erantzun zuen:

“Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago”.

Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuko xedapen indargabetzaile bakarrak honakoa dio: “1. Indargabetzen da Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak kreditatzeari buruzko ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua.” Hala eta guztiz ere, baieztatu daitezke uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan, 23.3. artikuluan, antzekotasun berak ageri direla.

• Ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuko VIII. kapituluak honako hau dio kontrolari eta ikuskapenari buruzkoa den 19. artikuluko b) lerrokada:

“19. artikulua. Adopzioa eskatzen duenari kobratzen ahal zaizkion gastuak, eskatu duen nazioarteko adopzioa tramitatzeko kudeaketa berariazkoaren ordain gisa, honako kontzeptu hauetatik etorriko dira:

b) Tramitazio gastuak, zeinetan eransten ahal baita entitate laguntzailearen mantenimenduari eusteko beharrezkoak diren gastuen zati proporzional bat”

• Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, honakoa ezartzen da 23. artikuluan:

“23. artikulua. Adopzioaren gastuak.

1. Honako gastu hauek dagozkie nazioarteko adopzioa eskatu dutenei:

c) Gastuen arabera finkatu prezio tarifatuak, NAGELaren azpiegitura eta langileak mantentzeko, kudeaketa gastuak ere barne. Mantentze gastuak justifikatu behar zaizkio Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari, eta egokiak eta arrazoizkoak izanen dira, herriko biziaren kostua eta egin beharreko eginkizunak kontuan harturik”

Argi dago arlo hau eta, horrenbestez, Departamentuak gai honetan garatu zuen kudeaketa, ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuak arautu zuela uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretua NAOn argitaratu zen arte; eta adopzioaren gastuei dago-kenez bi dekretuek xede bera dute: entitate lankidearen mantentzea ordaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturari, langileei eta gastuei eustea”

Bestalde, NAGELen eta haien zerbitzua erabiltzen duten pertsonen arteko kontratu-harremane-

an atal bat dago, “Nazioarteko kooperaziorako ekarpenari” dagokiona.

Indargabetutako lege dekretuko 19. artikulua-ren aipamenak erreferentzia egiten die testuinguruaz ezarri zeneko datari eta 8-14/PES 153 espediente-zenbakiko galderei erantzuteko datari.

Horrenbestez, agerikoa denez “galderak ezin izan direla behar bezala azaldu”, gisa honetara biformulatu ditugu:

Galdera idatziak:

Uztailaren 22ko 256/1996 Foru Dekretuak, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, indarra izan zuen urteei dagokienez:

1. Gizarte Politiketako Departamentuak ezagutzen al du edo ba al dauka agiri bidezko urteko frogagarriko edo/eta justifikaziorik NAGELetara jo zuten pertsonen entitate lankideen mantentzera bideratutako zenbatekoei buruz?

2. “Nazioarteko lankidetzaren” kontzeptuarekin eskuratutako zenbatekoak berdinak izan dira edo berdinak al dira Foru Komunitatean lan egiten duten entitate lankide guztietan?

3. Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, lankidetzara bideratzen diren zenbateko horiek egokiak eta arrazoizkoak al dira?

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuari dagokionez, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren:

4. Gizarte Politiketako Departamentuak ezagutzen al du edo ba al dauka urteko kreditatzerik edo/eta justifikaziorik NAGELetara jo zuten pertsonen NAGELetako azpiegituren eta langileen mantentzera bideratutako zenbatekoei buruz?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek txostenik jasotzen ote duten entitate lankideak adingabearen jatorrizko herrialdean dituen eginkizun eta jardueri buruz.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek txostenik jasotzen ote duten entitate lankideak adingabearen jatorrizko herrialdean dituen eginkizun eta jardueri buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluko agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak 8-14/PES 00156 espedienteko galderari emandako erantzuna.

2b. Ba al daki zein diren nazioarteko adopzio-rako entitate lankideek lan egiten duten herrialdeetan baliatzen dituzten irizpideak, eta horiei buruzko idatzizko ziurtapenik ba al du? Honakoa izan zen erantzuna:

- “Galdera ez da ulertzen.”

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak (2002ko irailaren 11ko 110. NAO), VI. kapituluko —“Entitate lankideen eginkizunak eta jarduketak”—, 17. artikuluan —“Jatorriko herriko eginkizunak”—, honakoa azaltzen du:

“Entitate lankideak jatorriko herrian honako eginkizun eta jarduerak izanen ditu:

c) Eskatzaileei eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari aditzera ematea zertan den adopzio espedientearen tramitazioa.

e) Informazio gehiago eskuratzea ordezkariaren bidez aurre-asignatu den adingabearen gainean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hala eskatzen badu, eman den informazioa guxtiegikotzat jota.

f) Adingabearen aurre-asignazioa jakinaraztea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari,

modu arrazoituan onespenean ala ukazio ebazpena eman dezan adingabearen eta eskatzaileen ezaugarrien arabera, txosten psikosozialean finkatu diren gaitasunak oinarri. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren ebazpenak aurrera eraginen dio prozedurari. Halaber, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak familiari jakinaraziko dio aurre-asignazioa eta haren gainean egiten duen balorazioa.

g) Adingabearen jatorriko herriko erakunde ofizialean duen ordezkariaren bitartez, aurre-asignazioa onartu ala arbuizatzeko dokumentua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak luzatua, aurkeztea eta, hala bide denean, eskatzailek onartu ala arbuizatzeko dokumentua.”

Horrenbestez, agerikoa denez “galdera ezin izan dela behar bezala azaldu”, gisa honetara birformulatu dugu:

Galdera idatzia:

Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, idatzizko txostenik edo bestelako egiaztagiririk jasotzen al dute NAGELen eskutik kasuko entitate lankideak adingabearen jatorrizko herrialdean betetzen dituen eginkizunei eta egiten dituen jardueri buruz, hain zuzen ere, uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuko 17. artikuluko c), f) eta g) letretan jasotakoei buruz?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren alorrean eskumenak dituzten haren menpeko erakundeek nola egiaztatuta eta ziurtatuta duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideekin akordioak sinatu dituzten pertsonen emandako diru-kopuruak 17. artikuluan deskribatzen diren kontzeptuetara bideratzen direla.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren alorrean eskumenak dituzten haren menpeko erakundeek nola egiaztatuta eta ziurtatuta duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideekin akordioak sinatu dituzten pertsonen emandako diru-kopuruak 17. artikuluan deskribatzen diren kontzeptuetara bideratzen direla.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko

Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak 8-14/PES 00156 espedienteko galderari emandako erantzuna.

1. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite zer-nolako edukia duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideek adingabearen jatorrizko herrialdearekin sinatzen dituzten hitzarmenek? Honakoa izan zen erantzuna:

- "EZ"

Galdera idatzia:

Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumenak dituzten haren menpeko erakundeek nola egiaztatuta eta ziurtatuta dute nazioarteko adopzioarako entitate lankideekin akordioak sinatu dituzten pertsonen emandako diru-kopuruak uztailearen 22ko 168/2002 Foru Dekretuko 17. artikuluan –"Jatorriko herriko eginkizunak"– deskribatzen diren kontzeptuetara bideratzen direla?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuaren 14.i artikuluan deskribaturiko informazioei eta jasotako irregulartasun-salaketei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuaren 14.i artikuluan deskribaturiko informazioei eta jasotako irregulartasun-salaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

1. Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak, V. kapituluko 14. artikuluan –Entitate lankideen betebeharrak–, honakoa dio:

i) “Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskatzen dizkion beste informazio guztiak.

j) Edozein okerkeria, abusu edo irabazi bidegabe jakiten duenean, haien berri ematea eta, hala bide denean, salatzea; irabazi bidegabetzat joko da beste herri batean egoitza duten adingabeak adoptatzeko gastuak berdintzeko behar direnak ez bestelako hoberi finantzarioak”

Galdera idatziak:

1. Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek eskatzen al dituzte sistematikoki 14.i) artikuluan deskribatzen diren informazioak?

2. Artikulu horri dagozkion zenbat informazio eskatu dituzte azken bost urteetan?

3. 14.j) artikuluan jasotakoetatik zenbat salaketa eta irregulartasun jaso ditu Gizarte Politiketako Departamentuak azken bost urteetan?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, ikuskapen eta kontrol zerbitzuak adopzioaren alorrean azken bost urteetan eginiko jarduketei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, ikuskapen eta kontrol zerbitzuak adopzioaren alorrean azken bost urteetan eginiko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako

galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak 8-14/PES 157 espedienteko galderari emandako erantzuna.

• 2. "NAGELek erraztu al dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen ikuskaritza eta kontrol jarduketak?" zioen galderaren erantzuna honakoa izan zen:

• Gaur arte Ikuskapen Zerbitzuak ez du galderan aipatutakoaren gisako jarduketarik.

Horrenbestez, agerikoa denez "galdera ezin izan dela behar bezala azaldu", gisa honetara birformulatu dugu:

Galdera idatzia:

1. Zenbat jarduketa egin ditu Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak adopzioaren arloan azken bost urteetan?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez ote dakien nazioko eta nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera errespetatu ote den, arau eta lege aldaketan arabera.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez ote dakien nazioko eta nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera

errespetatu ote den, arau eta lege aldaketan arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako kontseilariak erantzuna eman zien 8-14/PES 00159 espedienteko galderei —2014-08-21ean erregistratu ziren—. Zehazki, honakoa esan zuen:

“Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago.”

Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuko xedapen indargabetzaile bakarrak honakoa dio: “1. Indargabetzen da ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua (arautzen du nola kreditatu nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak).” Hala eta guztiz ere, baieztatu daitezke uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak antzeko eginkizun eta jarduketak jasotzen zituela.

Horrenbestez, agerikoa denez “galderak ezin izan direla behar bezala azaldu”, gisa honetara birformulatu ditugu:

Galdera idatziak:

Uztailaren 22ko 256/1996 Foru Dekretuak, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren, indarra izan zuen urteei dagokienez:

1. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez jakin al zuen nazioko eta nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketan arabera errespetatu ote zen? Baiezkoan,

2. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez jakin al zuen adopzioarako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketan arabera errespetatu ote zen Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankideetan?

3. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, egokiak eta arrazoizkoak al dira nazioarteko adopzioarako eskabideak Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankideetan tramitatzeke epeak, erregistratzen direnetik prozesua bukatu arte?

Uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuari dagokionez, non nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateak arautzen diren:

4. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki nazioko eta nazioarteko adopzioarako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketan arabera errespetatu ote den?

5. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ziurtasunez al daki adopzioarako eskabideen hurrenkera arau eta lege aldaketan arabera errespetatu ote den Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankideetan?

6. Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, egokiak eta arrazoizkoak al dira nazioarteko adopzioarako eskabideak Nafarroako Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopzioarako Entitate Lankideetan tramitatzeke epeak, erregistratzen direnetik prozesua bukatu arte?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa 3/2014 Foru Legearen Xedapen Iragankor Bakarrean ezarritako baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek adingabeak adoptatzeko lehentasuna izaten jarraitu ote duten.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa 3/2014 Foru Legearen Xedapen Iragankor Bakarrean ezarritako baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek adingabeak adoptatzeko lehentasuna izaten jarraitu ote duten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

8-14/PES 00160 espediente zenbakiarekin egindako galderak honakoak izan ziren:

1. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi izanak aldaketarik eragin al zien adopziorako legea indarrean sartu zen egunean zerrendan zeuden pertsonen, une horretan zerrendan zeukaten lehentasun-tokiari dagokionez?

2. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legeko xedapen iragankor bakarreko baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek lehentasuna edukitzen jarraitu al dute bi urtera bitarteko adingabeak bi urteko epean adoptatzeko, foru legea Nafarroa-

ko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunetik aitzina?

Ondorengo hau izan zen Departamentuak emandako erantzuna:

Xedapen iragankorraren testu berriak honakoa suposatzen du: a) Modu iragankorrean eutsi egiten zaio 0 eta 2 urte bitarteko adingabeen adopzio nazionalerako lehentasunari, bi inguruabar betetzen direnean: lehenik, seme-alabarik gabeko bikote bat izatea, eta, bigarrenik, erabaki izatea adopziorako egokitasuna dutela 13/2013 Foru Legeak indarra hartu baino lehen –2013ko martxoaren 28an hartu zuen indarra–; b) data horretatik aurrera, seme-alabarik gabeko familiek ez dute inongo lehentasunik 0-2 urteko adingabeak adopzio nazionalerako adoptatzeko, ezta data hori baino lehenago ere, baldin eta xedapen honek onura egiten dien familiek jada adopzio prozesua amaitu badute.

Badirudi agerikoa dela “3/2014 Foru Legeko xedapen iragankor bakarren baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek” esatean Departamentuak igorritako erantzuneko bi inguruabarrak aipatu nahi zirela.

Horrenbestez, agerikoa denez “galdera ezin izan dela behar bezala azaldu”, gisa honetara birformulatu dugu:

Galdera idatziak:

1. 3/2014 Foru Legeko xedapen iragankor bakarren baldintzak betetzen zituzten seme-alabarik gabeko familiek adingabeak adoptatzeko lehentasunari eutsi diote bai ala ez? Honakoak ziren baldintza horiek: modu iragankorrean eutsi egiten zaio 0 eta 2 urte bitarteko adingabeen adopzio nazionalerako lehentasunari, bi inguruabar betetzen direnean: lehenik, seme-alabarik gabeko bikote bat izatea, eta, bigarrenik, erabaki izatea adopziorako egokitasuna dutela 13/2013 Foru Legeak indarra hartu baino lehen –2013ko martxoaren 28an hartu zuen indarra–; data horretatik aurrera, seme-alabarik gabeko familiek ez dute inongo lehentasunik 0-2 urteko adingabeak adopzio nazionalerako adoptatzeko, ezta data hori baino lehenago ere, baldin eta xedapen honek onura egiten dien familiek jada adopzio prozesua amaitu badute.

Baiezkoan, ondorioztatzen dugu ez dela inongo aldaketarik gertatu 8-14/PES 00160 erantzunean azaldutako bi inguruabarrak gertatzearen eraginez.

2. Zein dira aipatutako zerrendako goranzko aldaketak (lehen betetzen zuten tokitik orain bete-

tzen duten tokirako aldaketak) eta zerrendan aurretik zeudenak gainditzeko arrazoiak?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean.

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa ea egokitasun deklarazioei buruzko ebazpen guztietan, erabaki berariazkoa eman eta jakinarazi gabekoetan, igarotzat jo ote diren adopzio eskaera aurkeztu zenetik zortzi hilabeteko gehienezko epeak.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako Galdera, jakitekoa ea egokitasun deklarazioei buruzko ebazpen guztietan, erabaki berariazkoa eman eta jakinarazi gabekoetan, igarotzat jo ote diren adopzio eskaera aurkeztu zenetik zortzi hilabeteko gehienezko epeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak honakoa dio:

“73. artikulua. Adopzio nazionalari eta nazioartekoari buruzko printzipio orokorrak.

a) Adopzioa eskatzen dutenen erregistroa eskabidearen dataren arabera eginen da. Hala

ere, ezaugarri bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko, antzintasun hurrenkerak ez du lehentasunik izanen”.

“74. artikulua. Adoptatzeko baldintzak.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio organo eskudunak egokitzat joak izatea.”

“81. artikulua. Egokitasunaren deklarazioa.

3. Egokitasun deklarazioa zortzi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, adopzio eskabidea eta harekin nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazio guztia familiaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren erregistroan edo Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistrotan edo tokitan sartzetik zenbatzen hasita. Epe hori ebazpen espresa eman eta jakinarazi gabe iraganez gero, onartutzat emanen da egokitasun deklarazioaren eskabidea. Egokitasun edo ezegokitasun deklarazioei buruzko ebazpen espres nahiz ustezkoen aurrean, interesdunek haien aurka egin ahalko dute jurisdikzio zibilean, aldez aurretik inolako administrazio erreklamaziorik aurkeztu gabe.

Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritako kasuan eta moduan bertan behera utzi eta luzatu ahalko da ebazpena emateko eta jakinarazteko legeak ezartzen duen gehienezko epea.”

Galdera idatzia:

1. Egokitasunaren deklarazioei buruzko ebazpen guztietan, berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez denean, aintzat hartu al dira eskabi-

de horiek adopzio eskabidea egiten denetik aurrerako zortzi hilabeteko gehieneko epeak iragan ondoren?

2. Martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea NAOn argitaratu zenetik martxoaren 14ko 3/2014 Foru

Legea argitaratu denera eta gaur arte, aldatu al dira egokitasun-irizpideak aplikatzeko erabiltzen diren irizpideak?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, egokitasuna adingabeen adopziorako baldintza gisa balortzearekin zerikusia duten zenbait alderdiri buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, egokitasuna adingabeen adopziorako baldintza gisa balortzearekin zerikusia duten zenbait alderdiri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak honakoa dio:

“73. artikulua. Adopzio nazionalari eta nazioartekoari buruzko printzipio orokorrak.

a) Adopzioa eskatzen dutenen erregistroa eskabidearen dataren arabera egiten da. Hala ere, ezaugarri bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko, antzinatasun hurrenkerak ez du lehenetasunik izaneren”

“74. artikulua. Adoptatzeko baldintzak.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio organo eskudunak egokitzat joak izatea”

“81. artikulua. Egokitasunaren deklarazioa.

3. Egokitasun deklarazioa zortzi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, adopzio eskabidea eta harekin nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazio guztia familiaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren erregistroan edo Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistrotan edo tokitan sartzetik zenbatzen hasita. Epe hori ebazpen espresa eman eta jakinarazi gabe iraganez gero, onartutzat emanen da egokitasun deklarazioaren eskabidea. Egokitasun edo ezegokitasun deklarazioei buruzko ebazpen espres nahiz ustezkoen aurrean, interesdunek haien aurka egin ahalko dute jurisdikzio zibilean, aldez aurretik inolako administrazio erreklamaziorik aurkeztu gabe.

Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritako kasuan eta moduan bertan behera utzi eta luzatu ahalko da ebazpena emateko eta jakinarazteko legeak ezartzen duen gehieneko epea”

Bestalde, “navarra.es. Adopzio nazionalako programa” web-orrian, “Ezaugarriak” kapituluko hirugarren puntuan honakoa ageri da:

• “Adopzioa eskatzen duten pertsonen balorazioa eta egokitasun-deklarazioa: balorazio bat egiten da baldin eta zure eskabidea zerrendako lehenengo hamarren artean badago”

“www.navarra.es/NR/rdonlyres/...1034.../09Cap iDesproInfancia” web-orriko “Nazioko eta nazioarteko adopzioa” izenburuko bederatzigarren kapituluari, honakoa esaten da:

“3. Nazioko eta nazioarteko adopzioa eskatzen duten familien balorazioa.

Aurreko atalean azaldu bezala, adopzioko lantaldeen (nazioko adopzioa izan nahiz nazioartekoa) eginkizun nagusien artean dago adopzioa eskatzen duten familiei informazioa eta prestakuntza ematea, bai eta haiek baloratu eta hautatzea ere.

Balorazioaren xedea da adopzioa eskatzen duten familiek adoptatzeko egokitasuna duten ala ez deklaratzeko. NGOIn, prozesu hori Nazioko eta Nazioarteko Adopzioko lantaldeek gauzatu dute.

Galdera idatziak:

1. “navarra.es. Adopzio nazionaleko programa” orrialdean honakoa aipatzen da: Adopzioa eskatzen duten pertsonen balorazioa eta egokitasun-deklarazioa: balorazio bat eginen da baldin eta eskabidea zerrendako lehenengo hamarren artean badago. Zein zerrendari buruz ari da orrialde hori

eta egokitasunaren zein balorazioari buruz ari da? Baldin eta arestian aipatutako zerrenda adopzioko zerrenda bada:

2. Zergatik baloratzen eta deklaratu da soilik lehen hamar eskatzaileen egokitasuna, adopzioerako zerrendan baloratutako pertsona gehiago ageri badira eta, gainera, egokitasunaren deklarazioa badute?

3. Zein araupetzetan oinarritzen da irizpide hori eta noiztik aplikatzen da?

4. Noiz sartu zen Nafarroako Gobernuaren orrialdean honako esaldi hau: “Adopzioa eskatzen duten pertsonen balorazioa eta egokitasun-deklarazioa: balorazio bat eginen da baldin eta zure eskabidea zerrendako lehenengo hamarren artean badago”?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean adopzioko administrazio prozedura arautzen duen foru dekretuaren proiektuari dagokionez Gizarte Politiketako Departamentuak eskuartean dituen aukerei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean adopzioko administrazio prozedura arautzen duen foru dekretuaren proiektuari dagokionez Gizarte Politiketako Departamentuak eskuartean dituen aukerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zein aukera ditu eskuartean Gizarte Politiketako Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean adopzioko prozedura administratiboa arautzen duen foru dekretuaren proiektua dela eta?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean.

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-lanei buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

8-14/PEI-00279 espediente zenbakiko informazio eskarian, 4. zenbakian, honakoa eskatu zen: "4) "Itzulketa" kasuetan, zein metodo erabili da haiek komunikatzeko, zein arrazoi egotz dakizkieke eta zenbat dira guztira? Honakoa izan zen Departamentuaren erantzuna:

"Adopzioaren esparruan "itzulketei" buruz hitz egiteak esan nahi du ez dela inolaz ere ezagutzen adopzio batek zer dakarren guraso adopzio-egileentzat. Haurrak ez dira "itzultzen", seme edo alaba biologiko bat itzultzerik ez dagoen bezala. Ez gara hitz egiten ari salgai bati buruz, baizik eta guraso horien familiako kidea betiko den pertsona bati buruz."

Aurreiritzi bat dago informazio-eskariaren zentzua honela interpretatzen denean: "Haurrak ez dira "itzultzen", seme edo alaba biologiko bat itzultzerik ez dagoen bezala. Ez gara hitz egiten ari salgai bati buruz, baizik eta guraso horien familiako kidea betiko den pertsona bati buruz"; eta "adopzioaren esparruan "itzulketei" buruz hitz egi-

teak esan nahi du ez dela inolaz ere ezagutzen zer dakarren guraso adopzio-egileentzat". Izan ere, halakoak esatea okerra eta desegokia da, guxtienez.

Lehenbizi, agerikoa denez, "itzulketa" hitzak erreferentzia egiten die egitate horrekin batera egiten diren txosten eta dokumentuei, eta ezinbestez lotuta dago esaldiaren honako zatiarekin: "zen metodo erabili da haiek komunikatzeko"; gainerako, aurreko hiru informazio-eskarietan testuinguru ederki emana dago, honakoari dagokionez:

1) Nafarroako Foru Komunitatean azken 10 urteetan hasi diren eta gauzatu diren (bereizita) nazioako eta nazioarteko espedienteen kopurua.

2) Azken 10 urteetan hasi diren eta gauzatu diren nazioako eta nazioarteko espedienteen kopuruari dagokionez, gainerako autonomia erkidegoekiko alderaketa.

3) Baldin eta Nafarroako autonomiaren eta gainerako arteen alderik badago, zein dira hori eragin duten arrazoiak eta inguruabarrak? (Agerikoa da alderaketak adopzio-espedientei eta kopuruei egiten diela erreferentzia).

Adierazi beharra dago 168/2002 Foru Dekretuan, ez 17. artikuluan –"Jatorriko herriko eginkizunak"–, ez 18. artikuluan –"Adopzioaren ondoko eginkizunak"– ez dela arautzen zein den jatorrizko herrialdeari egiten zaion komunikazioa; araupetze hori ezartzen da Adingabeen babeserako eta nazioarteko adopzioaren arloko lankidetzarako Hagako Konbentzioa aintzat hartu gabe. Izan ere, honakoa ezartzen du:

"21 artikulua.

Adopzioa harrerako estatuan gertatu behar bada haurra bertara joan ondoren, eta estatuko agintaritzak zentroak uste baldin badu haurra harrerako familian geratzea ez diola jada erantzuten haurraren interes gorenari, agintaritzak zentral horrek behar diren neurriak hartu beharko ditu haurra babesteko, bereziki honakoak eginez:

a) haurra erretiratzea hura adoptatu nahi zuten pertsonengandik, eta haren zaintzaz arduratzea behin-behinekoz;

b) jatorrizko estatuko agintaritzak zentralari kontsulta eginez, bermatzea, luzatu gabe, haurrari

beste kokaleku bat emanen zaiola bere adopzioari begira, edo, halakorik ez bada, iraupen luzeko beste kokaleku bat ematea; haurraren adopzioa soilik egin ahalko da jatorrizko estatuko agintaritza zentralari adopzio-guraso berriei buruzko behar den informazioa eman bazaio;

c) azken aukera gisa, bermatzea haurra jatorrizko estatura itzultzen dela, bere interesak hori exijitzen baldin badu.”

4. eskaria arrazoï horietan oinarrituta zegoen, bai eta Hagako Itunaren 19. artikuluko c) lerrokadako eta 15. artikuluko 3. puntuko balizko aplikazioan ere.

“3. Haurra tokiz aldatzen ez bada, 15. eta 16. artikuluetan aipatzen diren txostenak haiek egin dituzten agintariei itzuliko zaizkie.”

Halaber, “inolaz ere ez ezagutzea” erantzunean erabiltzen den “itzulketa” hitza ezinbestekoa dela balorazio batzuk egin ahal izateko.

Espainiako Errege Akademiak honela definitzen du devolució hitza

Devolución. (Del lat. devolutio. -onis). 1. f. Acción v efecto de devolver, y:

Devolver. (Del lat. devolvere).

1. Volver algo a su estado anterior (acepción a la que se refería la petición).

2. Restituir algo a quien lo tenía antes.

3. Corresponder a un favor, un agravio, una visita.

4. zenbakiko sarreran, RAEk mercancíari buruz ari denean, honela definitzen du:

4. Entregar al vendedor una compra por no estar conforme con ella, obteniendo el reintegro del dinero.

Horrenbestez, nire iritziz, Departamentuaren erantzunak irizpide subjektibo, desegoki, guztiz makur, tokiz kanpoko eta laidogarria erabiltzen du.

Galdera idatziak

1. Uste al du Gizarte Politiketako Departamentuak aurrez igorritako erantzuna egoki eta komenigarria dela formari eta edozein pertsonak, bere eginkizunak betetzen ari denean, merezi duen errespetuari dagokienez, alde batera utzita herritarren ordezkari bat dela?

2. Departamentuaren ohitura al da horrelako erantzunak ematea informazio-eskariet?

3. Zein elementu edo argudio dauzka Gizarte Politiketako Departamentuak argudiatzeko infor-

mazio eskarian erabiltzen den “itzulketa” terminoak erreferentzia egiten diola haurrak salgai baten gisara erabiltzeari?

Zioen azalpena:

Gero, Gizarte Politiketako Departamentuak 8-14/PEI-00279 espediente-zenbakiko informazio eskariari emandako erantzunean, honakoa azaltzen zen:

“Kopuru zehatzari buruzko (ez dira bi edo hiri baino gehiago izanen) informazio exhaustibo bat emateko ahaleginak egiteak eskatzen du bilaketa oso konplexua egitea, eta horrek proportziorik gabeko lana ekarriko luke, eskatutako informazioaren garrantziari erreparatuta”

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginak honakoa dio:

“14. artikulua. 1. Foru parlamentarietako eskubidea dute lanean jarduteko behar duten laguntza zuzenean edo beren parlamentu-taldearen bidez jasotzeko. Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrek emanen diete, bereziki, argibideei eta dokumentazioari buruzko laguntza.

56. artikulua. 1. Batzordeek, Parlamentuko lehendakariaren bidez, ondokoa egin ahalko dute:

a) Batzordearen eginkizunak betetzeko behar dituzten informazioa eta dokumentazioa eskatu Nafarroako Gobernuari eta administrazio publikoari.

4. Foru parlamentariak eskatu ahalko du, halaber, Legebiltzarreko lehendakariaren bitartez eta taldeko eleduna alde aurretik jakinaren gainean egonda, Estatuko Administrazioako agintari, organismo eta erakundeetako informazioa. Nafarroako toki entitateetako informazioa ere eskatu ahalko du.

Foru parlamentarietako beren lana ahal den modu onenean garatzeko eta, horrenbestez, Administrazioa kontrolatzeko, beharrezkoak diren informazio-eskariak egin ahal dituzte, erregelamendu-garapenera jarraituz.

Informazioaren garrantzia ez da eskaria jasotzen duenari dagokion ezer, baizik eta eskaria egiten duenari; besteak beste, eskaria jasotzen duenak ez dakielako zein den eskariaren arrazoia.

Hala eta guztiz ere, eta proportzio ezari dagokiona ulertuta, ez gaude inolaz ere ados erabilitako formarekin. Hona galdera idatziak:

Galdera idatziak:

1. “”Kopuru zehatzari buruzko (ez dira bi edo hiri baino gehiago izanen) informazio exhaustibo

bat emateko ahaleginak egiteak eskatzen du bilaketa oso konplexua egitea, eta horrek proportziorik gabeko lana ekarriko luke, eskatutako informazioaren garrantziari erreparatuta” diozunean, aipatzen duzun kopuru zehatza ez da inolaz ere hirutik gorakoa?

2. Zein bilaketa-lan egin behar dira 8-14/PEI-00279 informazio eskarian egindako galderari zehatz erantzuteko?

Iruñean, 2014ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hauxe jakin nahi dut Nafarroako 2015erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko 44. artikuluari buruz –Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura kontratuak–, non esaten baita O-NOZen mendeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituztela, hornitzaileei hamabostean behin eskaintza-eskaria eginez, urteko esleipenera jo behar izanik gabe:

- Zer erakunde autonomori buruz ari gara? Zer diru-kopuru ordaintzen dira urtean kontzeptu horiek direla-eta? Produktuak ematen dituzten enpresa hornitzaileen zerrenda jaso nahi dugu.

Oharra: 2011, 2012, 2013 eta 2014ko datuak ematea eskatzen dut, baldin eta eskuragarri badaude.

Iruñean, 2014ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrereri buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Belrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrereri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

8-14-PES-018 erregistro-zenbakiko ekimenari emandako erantzunean zehazten zen 2012ko ekitaldian 11.880koa izan zela ondarearen gaineko zergaren aitorten-egileen kopurua; eta 2013an, berriz, 11.769koa.

Datu horien arabera, Nafarroan 111 zergadun gutxiago egon da. Ondarearen gaineko zerga dela-eta 2012an eta 2013an izandako diru-sarreen xehetasuna jaso nahi dugu.

Iruñean, 2014ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko 6/2014 Foru Legearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko 6/2014 Foru Legearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Iragan urriaren 29an, Barcina lehendakariak Foru Araubideko Batzordean adierazi zuen Estatuak ez duela errekurtsorik aurkeztu Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zergari buruzko 6/2014 Foru Legearen aurka.

2014ko abuztuaren 11n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak aipatu lege horri buruz hartutako erabakia.

Akordioak haxe dio hitzez hitz:

1. Negoziazioak abiaraztea, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea dela-eta sortutako desadostasunak gainditzeko.

2. Lantalde bat izendatzea, Lankidetzaren Batzordeari bidezkoa den konponbidea proposatzeko.

3. Erabaki hau Auzitegi Konstituzionalari jakinaraztea, Auzitegi Konstituzionalari buruzko Lege Organikoko 33.2 artikuluan aipatutako organoetako baten bidez, manuan bertan jasotako ondorioetarako, eta erabakia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hori ikusita, horra galderak:

– Zer bilakaera izan du auzi honek? Lantaldea eratu al da? Zer urrats egin dira?

– Zein da etorkizunerako daukaten lan-egutegia?

– Auzitegi Konstituzionalari jakinarazpena igorri izanak berekin al dakar Lankidetzaren Batzordean epe jakin batean akordio bat lortu behar izatea?

– Auzitegi Konstituzionalari igorritako jakinarazpena uler al liteke Estatuak 6/2014 Foru Legeari errekurtsioa aurkeztearen iragarpen gisa?

Iruñean, 2014ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

